



# 2015eko Memoria
# Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

# Memoria 2015
## Dirección de Juego y Espectáculos


EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
*Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
*Dirección de Juego y Espectáculos*

# Aurkibide orokorra
# Índice General

**01 2015eko nabarmentzeko jarduketak**
Actuaciones destacadas en 2015 3

**02 Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren eskumenak**
Competencias de la Dirección de Juego y Espectáculos. 5

**03 Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren partaidetza duten organoak**
Órganos en que participa la Dirección de Juego y Espectáculos. 8

**04 Zerbitzuen banaketa funtzionala**
Distribución funcional de los servicios. 9

**4.1 Zerbitzu zentralak (Lakua)**
Servicios Centrales (Lakua) 10

**4.2 Lurralde-bulegoak**
Oficinas Territoriales 11

**4.3 Ikuskaritza Zerbitzua (Joko eta Ikuskizun Unitatea)**
Servicio de Inspección (Unidad de Juego y Espectáculos) 12

**4.4 Joko eta ikuskizunen zuzendaritzak baimendu dituen laborategiak**
Laboratorios habilitados por la Dirección de Juego y Espectáculos 12

**4.5 Baliabide eta zerbitzu teknikoak**
Recursos y Servicios técnicos 13

**05 2015eko Memoria - Jokoaren arloa**
Memoria 2015 - Área de juego 14

**06 2015eko Memoria – Ikuskizunen eta Jolas Jardueren arloa**
Memoria 2015 - Área de espectáculos y Actividades Recreativos 48

**07 EAEn joko eta ikuskizunei buruzko hausnarketak**
Reflexiones sobre el Juego y los espectáculos en la CAPV 77

# 01

## 2015eko nabarmentzeko jarduketak
## Actuaciones destacadas en 2015

**OTSAILA**
**Toreo-gaien Euskal batzorde Aholku-emailea**
**eta**
**14/2015 Dekretua, otsailaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren araudia bosgarrenez aldatzen duena. Jarduera hasteko orduaren aldaketa**

**EKAINA**
**Agindua, 2015eko ekainaren 16koa, Segurtasuneko sailburuarena, urriaren 4ko 380/1994 Dekretua garatzen duena**
**,**
**Euskadiko Apostu Batzordea**
**,**
**Euskal Joko Batzordea**
**y**
**Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilua**

FEBRERO
Comisión Vasca Asesora para Asuntos Taurinos
y
DECRETO 14/2015, de 10 de febrero, de quinta modificación del reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Modificación hora inicio actividad

JUNIO
Orden de 16 junio de 2015, de la Consejera de Seguridad, por la que se desarrolla el Decreto 380/1994, de 4 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos.
,
Comisión de Apuestas de Euskadi
,
Consejo Vasco del Juego
y
Consejo Vasco de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas

**URRIA**
**Hiru klub berrien (Gernika, Arenas eta Portugalete) atxikitxe kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako borrokaren eremuen protokoloari**

**ABENDUA**
**Jendeaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren legea**
**eta**
**Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilua**

OCTUBRE
Adhesión de tres nuevos clubes (Gernika, Arenas y Portugalete) al protocolo en materia de lucha contra la violencia, el racismo, la xenofobia y la intolerancia en el deporte

DICIEMBRE
Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas
y
Consejo Vasco de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas

# 02

## Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren eskumenak

## *Competencias de la Dirección de Juego y Espectáculos*

Apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuak Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du..

Dekretu horren 15. artikuluarekin bat etorriz, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari jokoaren arloko ahalmen eta eginkizun hauek dagozkio:

a) Ausazko jokoei eta jendaurreko ikuskizun eta jolas-jarduerei buruzko politika publikoak lantzea.
b) Modalitate bateko edo besteko jokoak ustiatzen dituzten enpresak sortzeko baimena ematea, baita jokoak eta lokalak ustiatzekoa ere, baldin eta indarreko legediaren araberakoak badira.
c) Joko-makinak eta makina laguntzaileak ustiatzeko baimen-mota guztiak ematea, eta, hala dagokionean, baimena iraungi izana deklaratzea.
d) Sare informatiko, sare telematiko eta joko-sistemen bidez, joko-jarduerak baimentzea, dagokion araudi eta plangintzaren eremuan.
e) Jokoaren Erregistro Nagusia eta haren atal guztiak kudeatzea, baita joko-lokaletarako sarrera galarazia duten pertsonen erregistroa ere.
f) Joko-jarduerekin lotutako egitekoak burutzeko beharrezkoak diren lanbide-agiriak ematea.
g) Joko- eta apustu-elementuak homologatzea.
h) Herritarren jarrerei, adingabeei eta menpekotasunezko jokabideen kontrolari dagokienez, jokoak gizartean duen eraginaren ikerketa sustatzea.
i) Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina publikoak egitea, joko arduratsua eta bermeduna lortzeko.
j) Ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren arloan Segurtasun Sailari izendatutako eskumen guztiak baliatzea, beste organo batzuei

El Decreto 194/2013, de 9 de abril, establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Seguridad.

De conformidad con el artículo 15 del citado Decreto, corresponde a la Dirección de Juego y Espectáculos, en materia de juego, el ejercicio de las siguientes facultades y funciones:

a) Elaborar las políticas públicas relativas a los juegos de azar y a los espectáculos públicos y actividades recreativas.
b) Autorizar la constitución de las empresas explotadoras de las diversas modalidades de juego, así como la explotación y práctica de los juegos y los locales en los que se celebren en los términos previstos en la legislación vigente.
c) Otorgar y, en su caso, declarar la caducidad de las autorizaciones para todo tipo de permisos de explotación de máquinas de juego y auxiliares.
d) Autorizar las actividades de juego por medio de redes informáticas, redes telemáticas y sistemas de juego, en el marco de la normativa y planificación correspondiente.
e) Gestionar el Registro Central de Juego y sus distintas secciones, incluido los registros de personas con prohibición de acceso a los locales de juego.
f) Otorgar los documentos profesionales necesarios para el desempeño de funciones en relación con actividades de juego.
g) Homologar los elementos de juego y apuestas.
h) Promover la investigación sobre incidencia social del juego en relación con los comportamientos ciudadanos, las personas menores de edad y el control de las conductas adictivas.
i) Realizar campañas públicas de sensibilización destinadas a la ciudadanía en aras de un juego responsable y con garantías.
j) Ejercer todas aquellas facultades que en materia de espectáculos públicos y actividades recreativas estén asignadas al Departamento de Seguridad a excepción

izendatutako eskumenak salbuespen direla.

k) Datuak mantentzea eta ustiatzea, eta estatistikak eta azterketak egitea, joko eta ikuskizunen urteko memoria landu ahal izateko.

l) Joko eta ikuskizun publikoen arloan eta jolas-jardueren arloan zehatzeko ahalmena kontrolatzea, ikuskatzea eta baliatzea, zehapen hauek jarriz: Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 32.1 artikuluan, eta Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 38.3.b) artikuluan jasotako zehapenak, baita indarrean dauden arauek izendatzen dizkiotenak ere.

Halaber, kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legean aurreikusitako zehapen-erregimenari buruzko espedienteak bideratzea ere badagokio, eta arau-hauste arin eta larriei dagozkien zehapenak jarriko ditu.

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako Lege Aholkularitza Arloak bideratuko ditu zehapen-espediente horiek.

Zuzendaritza honen menpe dauden lurralde-bulegoek honako ahalmen eta eskumen hauek izango dituzte dagokien lurralde-eremuan, betiere zuzendariak emandako irizpideen arabera:

a) Baimenak ematea, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko. Nolanahi ere, salbuespen izango dira 10.000 lagunetik gorako edukiera dutenak eta zezen-ikuskizun nagusiak.

b) «B» motako makinei eta jokorako makina laguntzaileei dagozkien izapideak egitea eta baimenak ematea. Nolanahi ere, salbuespen izango dira honako hauei dagozkien baimentzeak: ustiapen-baimenak eta horien eskualdatzeak, erredentzio-makinak edo «AR» izenekoak ustiatzeko erantzukizun-adierazpenak jasotzea, eta jolas-aretoak ustiatzea.

c) Beharrezko lanbide-dokumentuak ematea eta berritzea, bingo-aretoetan jardun ahal izateko.

de aquellas que estén reservadas a otros órganos.

k) Mantenimiento y explotación de datos y elaboración de estadísticas y prospecciones para la elaboración de la memoria anual de juego y espectáculos.

l) Controlar, inspeccionar y ejercer la potestad sancionadora en materia de juego y espectáculos públicos y actividades recreativas, imponiendo las sanciones previstas en el artículo 32.1 de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, de Juego del País Vasco, en el artículo 38.3.b) de la Ley 4/1995, de 10 de noviembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas y las demás que le vengan atribuidas por la legislación vigente.

Así mismo, le corresponde instruir los expedientes relativos al régimen sancionador previsto en la Ley 19/2007, de 11 de julio, contra la violencia, el racismo, la xenofobia y la intolerancia en el deporte, imponiendo las sanciones correspondientes a infracciones leves y graves.

Los referidos expedientes sancionadores serán instruidos por el Área de Asesoría Jurídica de la Dirección de Juego y Espectáculos.

Las Oficinas Territoriales dependientes de esta Dirección ejercerán, de acuerdo con las instrucciones emanadas del titular de la Dirección, las siguientes facultades y competencias dentro de su ámbito territorial:

a) Otorgamiento de las autorizaciones para la celebración de espectáculos públicos y actividades recreativas, con excepción de las correspondientes a aquéllas con un aforo superior a 10.000 personas y los espectáculos taurinos generales.

b) Tramitación y autorizaciones relativas a máquinas de tipo «B» y máquinas auxiliares de juego con excepción de las autorizaciones de permisos de explotación y su transmisión, así como la recepción de las declaraciones responsables para la explotación de las máquinas tipo AR o recreativas de redención y las relativas a la explotación de salones recreativos.

c) Otorgamiento y renovación de los documentos profesionales necesarios para el desempeño de funciones en las

d) Lokal publikoen dokumentazioa eta datu-baseak kudeatzea eta eguneratzea, baldin eta horren kontrola Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari badagokio.
e) Dagokien lurralde-eremuko ikuskaritzarekiko koordinazioa.

salas de bingo.
d) Gestión y actualización de la documentación y bases de datos de los locales de pública concurrencia cuyo control este atribuido a la Dirección de Juego y Espectáculos.
e) Coordinación con la inspección en su ámbito territorial.

Adierazitako egiteko horiek betetzeko, Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Atala Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren menpe egongo da funtzionalki, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legeko 34.2 artikuluari eta Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legeko 25. artikuluari jarraikiz.

Para el ejercicio de las funciones referidas, la Unidad de Juego y Espectáculos de la Ertzaintza dependerá funcionalmente de la Dirección de Juego y Espectáculos, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 34.2 de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, reguladora del Juego en la Comunidad Autónoma del País Vasco y del artículo 25 de la Ley 4/1995, de 10 de noviembre, reguladora de los Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas.

Orobat, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak, joko eta ikuskizunen politikak finkatzeko, horretarako behar duen informazioa eskatu ahal izango dio Ertzaintzaren Zuzendaritzari.

Así mismo, para el establecimiento de las políticas de juego y espectáculos, la Dirección de Juego y Espectáculos podrá recabar de la Dirección de la Ertzaintza la información que a tal efecto precise.

# 03

## Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren partaidetza duten organoak

## Órganos en que participa la Dirección de Juego y Espectáculos

| | |
|---|---|
| -*Jokoaren Euskal Kontseilua.* | -*Consejo Vasco de Juego.* |
| -*Euskadiko Apustuen Batzordea.* | -*Comisión de Apuestas de Euskadi.* |
| -*Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseilua.* | -*Consejo Vasco de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas.* |
| -*Zezenketa-gaien Euskal Batzorde Aholku-emailea.* | -*Comisión Vasca Asesora de Asuntos Taurinos.* |
| - *Joko Arduratsuaren Aholku Batzordea* | -*Consejo Asesor del Juego Responsable.* |
| -*Jokoaren Politiken Kontseilua, Autonomia Erkidegoak eta Ogasun Ministerioa.* | -*Consejo de Políticas de Juego. CC.AA. y Ministerio de Hacienda.* |
| -*Zezen Gaietarako Aholku Batzorde Nazionala (Estatua eta autonomia-erkidegoak).* | -*Comisión Consultiva Nacional de Asuntos Taurinos (Estado y Comunidades Autónomas).* |
| -*GREF (Gaming Regulators European Forum), Euskal Autonomia Erkidegoaren izenean.* | -*GREF (Gaming Regulators European Forum), en representación de la Comunidad Autónoma de Euskadi.* |

## 04

## Zerbitzuen banaketa funtzionala
*Distribución funcional de los servicios*



## 4.1 Zerbitzu zentralak (Lakua)

Servicios centrales (Lakua)

### Helburua / Finalidad

Ikuskizunetako jarduerak antolatzea eta koordinatzea.

Planificación y coordinación de las actividades de juego y espectáculos.

### Funciones / Funtzioak

- Zerbitzuen plangintza, koordinazioa eta kontrol orokorra egitea.
- Zuzendaritzako aplikazio informatikoen eta datu-baseen kontrola eta jarraipena egitea.
- Joko eta ikuskizun arloko baimenak ematea.
- Dokumentuen eta prozeduren estandarizazioa.
- Ikuskapenaren plangintza eta koordinazio orokorra.
- Joko eta ikuskizun arloan aholkularitza juridiko espezializatua ematea.
- Arau-garapena.
- Jokoaren Euskal Kontseilua, Ikuskizunen Euskal Kontseilua, Zezen-gaietarako Euskal Batzorde Aholku-emailea eta Euskadiko Apustuen Batzordea koordinatzea eta horien jarraipena egitea.
- Memoriak, estatistikak eta txosten orokorrak.
- Joko eta ikuskizun arloko zehapen-espedienteak izapidetzea.
- Herritarren jarrerei, adingabeei eta menpekotasunezko jokabideen kontrolari dagokienez, jokoak gizartean duen eraginari buruzko azterketak eta lanak egitea.
- Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina publikoak egitea, joko arduratsua eta bermeduna lortzeko.

- Planificación, coordinación y control general de los Servicios.
- Control y seguimiento de las aplicaciones informáticas y bases de datos de la Dirección.
- Otorgamiento de autorizaciones en materia de Juego y Espectáculos.
- Estandarización documental y de procedimientos.
- Planificación y coordinación general de la inspección.
- Asesoramiento jurídico especializado en Juego y Espectáculos.
- Desarrollo normativo.
- Coordinación y seguimiento del Consejo Vasco de Juego, Consejo Vasco de Espectáculos, Comisión Asesora Vasca de Asuntos Taurinos y Comisión de Apuestas de Euskadi.
- Memorias, estadísticas e informes generales.
- Tramitación de expedientes sancionadores de Juego y Espectáculos.
- Elaborar estudios y trabajos de investigación sobre la incidencia social del juego en relación con los comportamientos ciudadanos, las personas menores de edad y el control de las conductas adictivas.
- Realizar campañas públicas de sensibilización destinadas a la ciudadanía en aras de un juego responsable y con garantías.

## 4.2 Lurralde-bulegoak
### Servicios Territoriales

**Helburua** / Finalidad

Izapidetzea eta herritarrentzako arreta zuzena.

Joko eta ikuskizun arloko Lurralde Bulegoek, betiere zuzendaritzaren titularrak emandako jarraibideen arabera, beren lurralde-eremuan ahalmen eta eskumen hauek baliatuko dituzte:

1. Baimenak ematea, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko. Nolanahi ere, salbuespen izango dira zezen-ikuskizun nagusiei eta 10.000 pertsonatik gorako edukiera dutenei dagozkienak; baita, beren ezaugarri bereziak direla eta, zuzendaritzaren titularrak bereganatuko dituenak.
2. Izapidetzea eta “B” motako makinei buruzko baimenak ematea. Nolanahi ere, salbuespen izango dira ustiapen-baimenak eta horien eskualdatzeak.
3. Beharrezko lanbide-dokumentuak ematea eta berritzea, bingo-aretoetan jardun ahal izateko.
4. Dagokien lurralde-eremuan ikuskaritzarekiko koordinazioa.

Tramitación y atención directa al ciudadano.

Las Oficinas Territoriales de Juego y Espectáculos ejercerán, de acuerdo con las instrucciones emanadas del titular de la Dirección, las siguientes facultades y competencias dentro de su ámbito territorial:

1. Otorgamiento de las autorizaciones para la celebración de espectáculos públicos y actividades recreativas, con excepción de las correspondientes a espectáculos taurinos generales, aquellas que impliquen un aforo superior a 10.000 personas y, aquellas otras que por sus características específicas fueran avocadas por el titular de la Dirección.
2. Tramitación y autorizaciones relativas a máquinas de tipo "B" con excepción de las autorizaciones de permisos de explotación y su transmisión.
3. Otorgamiento y renovación de los documentos profesionales necesarios para el desempeño de funciones en las salas de bingo.
4. Coordinación con la inspección en su ámbito territorial.

**Beste funtzio batzuk** / Otras funciones

- Geroagoko izapidetzeari begira, dokumentazioa jasotzea.
- Herritarrei arreta eta aholku ematea.
- Lurralde Zerbitzu bakoitzeko jarduerak, langileak eta instalazioak kudeatzea eta kontrolatzea.
- Datu-baseak mantentzea eta gainbegiratzea.
- Prozedurak kontrolatzea eta gainbegiratzea.
- Araudia aplikatzea.
- Lurralde Zerbitzu bakoitzeko memoriak, estatistikak eta txostenak.
- Areto eta joko enpresen baimenen prozedurak izapidetzea.

- Recepción de documentación para su posterior tramitación.
- Atención y asesoramiento al ciudadano.
- Gestión y control de actividades, personal e instalaciones de cada Servicio Territorial.
- Mantenimiento y supervisión de las bases de datos.
- Control y supervisión de procedimientos.
- Aplicación de la normativa.
- Memorias, estadísticas e informes de cada Servicio Territorial.
- Tramitación de los procedimientos de autorización de locales y empresas de juego.

## 4.3 Ikuskaritza Zerbitzua (Joko eta Ikuskizun Unitatea)
Servicio de Inspección (Unidad de Juego y Espectáculos)

**Helburua** / Finalidad

Joko eta ikuskizunetako jarduerak zaintzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.

Vigilancia, inspección y control de las actividades de juego y espectáculos.

**Funciones** / Funtzioak

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak emandako jarraibideak eta indarreko araudia kontuan hartuta:

1. Jokoaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoa zaintzea, ikuskatzea eta betearaztea.
2. Jokorako nahitaezko baimenik ez duten materialak eta lokalak zigilatzea, konfiskatzea, ixtea edo bertan behera utzaraztea.
3. Beren funtzioak betetzetik sortutako aktak egitea eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako organo eskudunari helaraztea.

De acuerdo con las instrucciones emanadas de la Dirección de Juego y Espectáculos y la normativa vigente:

1. Vigilar, inspeccionar y hacer cumplir lo dispuesto en la normativa vigente en materia de Juego.
2. Proceder al precinto, comiso, clausura o suspensión de materiales, locales de juego sin la preceptiva autorización.
3. Levantar las actas que se deriven del cumplimiento de sus funciones y elevarlas al órgano correspondiente de la Dirección de Juego y Espectáculos.

## 4.4 Joko eta ikuskizunen zuzendaritzak baimendu dituen laborategiak
Laboratorios habilitados por la Dirección de Juego y Espectáculos

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak 11 laborategi ditu akreditatuta joko-makinen eta sistemen aurretiazko probak egiteko. Hona hemen:

Se encuentran acreditados por la Dirección de Juego y Espectáculos 11 laboratorios para los ensayos previos de máquinas y sistemas de juego, y son:

- FUNDACIÓN LABEIN
- LGAI TECNOLOGICAL CENTER, S.A
- NMI CERTIN BV
- QUINEL, S.A.
- CENTRO DE PRUEBAS Y ENSAYOS DE MAQ. REC.-UNIV. DE OVIEDO
- GLI EUROPE BV
- SLOVENIAN INSTITUTE OF QUALITY AND METROLOGY-SIQ
- AT4 WIRELESS S.A.
- SGS TECNOS, S.A.
- BMM SPAIN TESTLABS S.L.U
- LABS DE ENSAYOS DE MAQ. REC. Y J. AZAR FUND. FOMENTO INNOV. INDUS.

Makinen ikuskapen teknikoa egiteko laborategi baimenduak:

Laboratorios autorizados para realizar inspecciones técnicas de máquinas (ITM):

- LGAI TECNOLOGICAL CENTER, S.A
- GLI EUROPE BV
- BMM SPAIN TESTLABS S.L.U
- QUINEL M. LIMITED

## 4.5 Baliabide eta zerbitzu teknikoak

### Recursos y servicios técnicos

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak berariazko baliabide teknologikoak ditu ikuskizunen arloa bezalako esparru konplexuen eta bizitasun handikoak direnen kudeaketari, ikuskapenari eta kontrolari aurre egin ahal izateko. Horien artean hauek ditugu:

- Baimenak prozesatzea eta kontrolatzea kudeaketarako eta irudirako sistema informatiko integratuaren bidez, horrek balio baitu zuzendaritzako gaien ohiko izapidetzerako oinarrizko euskarri gisa.
- Ikuskapenerako aplikazio informatikoa.
- Zehapenetarako aplikazio informatikoa.
- Artxibo sistema digitalizatu optikoa, non administrazio-agiriak fidagarritasunez eta erabiltzeko moduan bildu eta zaintzen diren..
- Jokoak ikuskatu eta kontrolatzeko software-analizatzaileak.

- Ikuskapena eta kontrola egiteko ikus-entzunezko hainbat material.
- Probetarako joko-simulatzaile programagarriak eta joko-makinen homologazioa.
- Joko-baimenak telematikoki izapidetzeko sistema, internet bidez.

La Dirección de Juego y Espectáculos dispone de recursos tecnológicos específicos para hacer frente a la gestión, inspección y control de áreas complejas y de gran dinamismo, como son las de juego y espectáculos. Entre ellos están:

- Proceso y control de las autorizaciones mediante sistema informático integrado de gestión e imagen, que sirve de soporte básico para la tramitación ordinaria de los asuntos de la Dirección.
- Aplicación informática de inspección.
- Aplicación informática de sanciones.
- Sistema de archivo digitalizado óptico, en el que se recoge y custodia de forma fiable y accesible la documentación administrativa.
- Analizadores del software para inspección y control de los diferentes juegos.
- Material audio-visual diverso para inspección y control.
- Simuladores de juego programables para ensayos y homologación de máquinas de juego.
- Sistema de tramitación telemática para las autorizaciones de juego, a través de Internet.



# 2015eko Memoria
# Jokoaren arloa

## Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

# Memoria 2015
# Área de juego

## Dirección de Juego y Espectáculos

EUSKO JAURLARITZA

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
*Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza*

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
*Dirección de Juego y Espectáculos*

# Jokoaren arloa - Aurkibide orokorra
## Área de juego- Índice General


| | | | |
|---|---|---|---|
| J01 | **Grafikoen aurkibidea**<br>Índice de gráficos | | 16 |
| J02 | **31-12-2015eko datu estatistikoak.**<br>Datos estadísticos al 31-12-2015. | | 17 |
| | J2.1 | **Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak kontrolatu beharreko joko jarduerak**<br>Actividades de juego cuyo control corresponde a la Dirección de Juego y Espectáculos | 18 |
| | J2.2 | **Jokoaren arloko baimenak**<br>Autorizaciones en materia de juego | 19 |
| | J2.3 | **Jokoko bestelako izapideak**<br>Trámites varios de juego | 20 |
| | J2.4 | **Joko-makinen enpresak**<br>Empresas de máquinas de juego | 21 |
| | J2.5 | **Jokorako materialaren homologazioa**<br>Homologación de material de juego | 22 |
| | J2.6 | **Euskal Autonomia Erkidegoko joko-lokalak**<br>Locales de juego en la C. A. de Euskadi | 23 |
| | J2.7 | **Apustu orokorrak**<br>Apuestas generales | 24 |
| | J2.8 | **Diru-sarrerak. Tasak**<br>Ingresos. Tasas | 30 |
| | J2.9 | **Zehapen-espedienteak eta errekurtsoak.**<br>Expedientes sancionadores y recursos. | 34 |
| | J2.10 | **Ikuskaritza-lana.**<br>Actividad inspectora de la UJE. | 39 |
| J03 | **Jokoaren arloan 2015eko Agenda**<br>Agenda 2015 del Área de Juego | | 42 |
| J04 | **Arau-egitura.**<br>Estructura normativa. | | 45 |

# J01

## Grafikoen aurkibidea
Índice de gráficos


| | | |
|---|---|---|
| **I. Grafikoa:**<br>Gráfico I: | **Jokoaren arloko baimenak (urteko aldakuntza)**<br>Autorizaciones en materia de juego (Variación anual) | 19 |
| **II. Grafikoa:**<br>Gráfico II: | **Jokoko bestelako izapideak (urteko aldakuntza)**<br>Tramites varios de juego (variación anual) | 20 |
| **III. Grafikoa:**<br>Gráfico III: | **Joko-enpresak (jarduera)**<br>Empresas de juego (actividad) | 21 |
| **IV. Grafikoa:**<br>Gráfico IV: | **Jokorako materialaren homologazioa (urte arteko bilakaera)**<br>Homologación de material de juego (Evolución interanual) | 22 |
| **V. Grafikoa:**<br>Gráfico V: | **EAEko joko-lokalak. (Lurralde historikoen arabera eta urteko aldakuntza)**<br>Locales de juego en la C.A.P.V. (Por TTHH y variación anual) | 23 |
| **VI. Grafikoa:**<br>Gráfico VI: | **Apustu-jardueraren ehunekoa (Lurralde historikoen arabera)**<br>Porcentaje de actividad de apuestas (por TTHH) | 26 |
| **VII. Grafikoa:**<br>Gráfico VII: | **2014-2015 urteetako apustuen azterketa konparatiboa**<br>Apuestas Comparativo 2014-2015 | 27 |
| **VIII. Grafikoa:**<br>Gráfico VIII: | **Apustu-jardueraren ehunekoa (enpresa esleipendunen arabera)**<br>Porcentaje de actividad de apuestas (por empresa adjudicataria) | 28 |
| **IX. Grafikoa:**<br>Gráfico IX: | **2014-2015 urteetako apustuen azterketa konparatiboa**<br>Apuestas comparativa 2014-2015 | 29 |
| **X. Grafikoa:**<br>Gráfico X: | **Tasengatiko diru-sarrerak lurralde historikoen arabera (2014-2015 urteetako azterketa konparatiboa)**<br>Ingresos por tasas por TTHH (comparativo 2014-2015) | 30 |
| **XI. Grafikoa:**<br>Gráfico XI: | **Tasak (bildutako tasen kopurua, zenbatekoa eta ehunekoa lurralde historikoen arabera)**<br>Tasas (número de tasas recaudadas, importe y porcentaje por TT.HH.) | 33 |
| **XII. Grafikoa:**<br>Gráfico XII: | **Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitatearen ikuskaritza-lana (urte arteko aldakuntza)**<br>Actividad inspectora de la Unidad de Juego y Espectáculos de la Ertzaintza (variación interanual) | 40 |

# J02

## 31-12-2015eko datu estatistikoak
## Datos estadísticos al 31-12-2015

Memoria honetan 2015eko ekitaldian zehar Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak izandako jarduerari buruzko daturik garrantzitsuenak eskaintzen dira. Jokoarekin loturiko beste jarduera batzuk badaude, baina dokumentu honetan ez dira jaso. Izan ere, jarduera horiek toki- edo eskualde-eremuan egiten dira – gainera, noizean behin – eta jende gutxiri lotuta daude. Horien artean herri-kirola, pilotalekuetako apustuak, etab. ditugu, eta eragin ekonomiko txikia dute.

Datuak eta estatistikak lantzeko erabilitako iturriak Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzarenak dira (Sistemen eta Kudeaketa Zerbitzua, Aholkularitza Juridikoa Zerbitzua, lurralde-bulegoak, baita Ertzaintzaren Joko eta Ertzantzaintzaren Ikuskizun Unitatea ere).

En la presente memoria, se ofrecen los datos más significativos referidos a la actividad de la Dirección de Juego y Espectáculos durante el ejercicio 2015. Existen otras actividades relacionada con el juego, las cuales no se han reflejado en el presente documento, que se desarrollan en ámbitos locales o regionales, y ocasionalmente, que tiene carácter minoritario, tales como el deporte rural, las apuestas en frontones, etc. cuyo montante económico es muy limitado.

Las fuentes utilizadas para la elaboración de los datos y estadísticas son las propias de la Dirección de Juego y Espectáculos (Servicio de Sistemas y Gestión, Servicio de Asesoría Jurídica, Oficinas Territoriales, así como la Unidad de Juego y Espectáculos de la Ertzaintza).

## J2.1 J. eta Ik. Zuzendaritzak kontrolatu beharreko joko-jarduerak
La Actividades de juego cuyo control corresponde a la D.J.E.

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira /Total |
|---|---|---|---|---|
| **Enpresa operadoreak** Empresas operadoras | | | | |
| **"B" makinak** / máquinas "B" | 66 | 213 | 120 | 399 |
| **"C" makinak** / máquinas "C" | | 1 | 1 | 2 |
| **Apustu-makinak** / máq. de apuestas | | 2 | 1 | 3 |
| **Joko-makinetarako baimenak** Permisos máquinas de juego | | | | |
| **"B" makinak** / máquinas "B" | 1.806 | 6.844 | 3.344 | 11.994 |
| **"C" makinak** / máquinas "C" | | 70 | 54 | 124 |
| **Apustu-makinak** / máq. de apuestas | 339 | 987 | 551 | 1.877 |
| **Apustu-makinak apustu-lokaletan eta gaitutako lokaletan** Máquinas de apuestas en Locales de apuestas y habilitados | 91 | 343 | 176 | 610 |
| **Apustu-makinak ostalaritzan eta bestelakoetan** Máquinas de apuestas en Hostelería y otros | 248 | 644 | 375 | 1.267 |
| **Bingoak** / Bingos | 3 | 8 | 3 | 14 |
| **Edukiera** / Aforo | 1.153 | 2.513 | 1.175 | 4.841 |
| **Lanbide-txartelak** Carnets Profesionales | 6 | 20 | 2 | 28 |
| **Joko-aretoak** / Salones de juego | 22 | 93 | 55 | 170 |
| **Gaitutako apustu-lokala** Habilitado local de apuestas | 7 | 20 | 13 | 40 |
| **Kasinoak** / Casinos | | 1 | 1 | 2 |
| **Edukiera** / Aforo | | 600 | 620 | 1220 |
| **Lanbide-txartelak** Carnets profesionales | | 23 | 14 | 37 |
| **Apustu-lokalak** Locales de apuestas | 3 | 15 | 8 | 26 |
| **Hipikako apustuak (Enpresak)** Apuestas hípicas (Empresas) | | | 1 | 1 |
| **Zozketak** / Rifas | 3 | 17 | 1 | 21 |
| **Ausazko konbinazioak** Combinaciones aleatorias | 11 | 45 | 33 | 89 |

## J2.2 Jokoaren arloko baimenak
Autorizaciones en materia de juego

### Joko-makinak / Máquinas de Juego

| | 2013 | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|
| **B makinetarako baimenak (behin betiko bajak, ustiatzeko aukera)** / Permisos máquinas B (Bajas definitivas, Expectativa explotación) | 1.168 | 1.167 | **1.101** |
| **B motako baimenak eskualdatzea (baimen-kopurua)** / Transmisión de permisos B (número de permisos) | 773 | 637 | **617** |
| **B (altak), B eta J motako enpresa operadoreak** / Empresas operadoras B (altas) B y J | 6 | 7 | **12** |
| **B (bajak), B eta J motako enpresa operadoreak** / Empresas operadoras B (bajas) B y J | 21 | 58 | **23** |

### I. grafikoa: Jokoaren arloko baimenak (urteko aldakuntza)
Gráfico I: Autorizaciones en materia de juego (Variación anual)



## J2.3 Jokoko bestelako izapideak
Trámites varios de juego

| | 2014 | 2015 |
|---|---|---|
| **Ziurtagiriak** Certificaciones | 25 | 36 |
| **Abalen itzulketa** Devolución de avales | 98 | 42 |

**II. grafikoa: Jokoko bestelako izapideak (urteko aldakuntza)**
Gráfico II: Trámites varios de Juego (Variación anual)



## J2.4 Joko-enpresak (jarduera)
Empresas de juego (Actividad)

| | 2014 | 2015 |
|---|---|---|
| **Fabrikatzaileak eta merkaturatzaileak (inskripzioak/berritzeak)** Fabricantes y comercializadoras (inscripciones /renovaciones) | 10 | 7 |
| **Interkonexio-sistemaren emailea (inskripzioak)** Prestataria de Sistema Interconexión (inscripciones) | 3 | 0 |
| **Laborategiak (inskripzioak/berritzeak)** Laboratorios (inscripciones /renovaciones) | 0 | 3 |
| **Aldaketa sozietarioak (Apustu-enpresak)** Modificaciones societarias (Empresas apuestas) | 24 | 17 |
| **Aldaketa sozietarioak (Kasino-enpresak)** Modificaciones societarias (Empresas casino) | 3 | 3 |
| **Aldaketa sozietarioak (Beste enpresa batzuk)** Modificaciones societarias (otras empresas) | 12 | 25 |
| **Bingoa sustatzeko ekintzak** Acciones promocionales bingo | 2 | 10 |
| **Kasinoa sustatzeko ekintzak** Acciones promocionales casino | 10 | 8 |
| **Apustuak sustatzeko ekintzak** Acciones promocionales apuestas | 20 | 13 |
| **Sustatzeko beste ekintza batzuk** Otras acciones promocionales | 0 | 5 |

### III. grafikoa: Joko-enpresak (jarduera)
Gráfico III: Empresas de juego (Actividad)



## J2.5 Jokorako materialaren homologazioa
Homologación de material de juego

| | 2014 | 2015 |
|---|---|---|
| **"AR" makinen modeloak**<br>Modelos de máquinas "AR" | 4 | 3 |
| **"B" makinen modeloak**<br>Modelos de máquinas "B" | 99 | 56 |
| **"C" makinen modeloak**<br>Modelos de máquinas "C" | 11 | 12 |
| **Sistema interkonektatuak**<br>Sistemas interconectados | 7 | 3 |
| **"B" makinen merkataritza-probak**<br>Pruebas comerciales máquinas "B" | 11 | 44 |
| **"P" motako apustu-makinak**<br>Máquinas de apuestas tipo "P" | 2 | 0 |
| **On-line apustu-sistemak**<br>Sistemas de apuestas on-line | 2 | 0 |
| **Guztira** / Total | **136** | **118** |

**IV. grafikoa: Jokorako materialaren homologazioa (urte arteko bilakaera)**
Gráfico IV: Homologación de material de juego (Evolución interanual)



## J2.6 Euskal Autonomia Erkidegoko joko-lokalak

Locales de juego en la Comunidad Autonoma de Euskadi

| | Guztira / Total 2014 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira / Total 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Kasinoak** / Casinos | 2 | | 1 | 1 | **2** |
| **Bingoak** / Bingos | 15 | 3 | 8 | 3 | **14** |
| **Joko-aretoak** / Salones de juego | 162 | 22 | 93 | 55 | **170** |
| **Apustu-lokalak** / Locales de apuestas | 26 | 3 | 15 | 8 | **26** |
| **Lokalak guztira** Total locales | **205** | **28** | **117** | **67** | **212** |

2015. urtean joko-aretoen kopurua bakarrik aldatu da, izan ere 8 gehiago daude, beste datuek berdin jarraitzen dute.

En este año 2015 solo ha habido cambio en el número de salones que se ha aumentado en 8, siendo los demás datos constantes.

### V. grafikoa: EAEko joko-lokalak. (Lurralde historikoen arabera eta urteko aldakuntza)

Gráfico V: Locales de juego en la C.A.P.V. (Por TTHH y variación anual)



# J2.7 Apustu orokorrak

## Apuestas generales

Jokoaren arloan apustu orokorren azpisektorea bereganatzen ari den interes ekonomikoa eta garrantzia direla eta, egokitzat jo da Euskal Autonomia Erkidegoan apustuen esleipendunak diren enpresen jardueraren gaineko datuak agertzea.

Gogorarazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoa izan zela Estatuan apustu-sistema arautu zuen lehena.

Pasa den urteari buruz, bildutako diru kopuruak jaitsiera txiki bat izan badu ere, esan dezakegu sektorea "osasuntsu" dagoela.

Hurrengo taulan garrantzirik handieneko datu ekonomikoak agertzen dira (apustu-kopurua, bildutako dirua, emandako sariak eta bilketa garbia), datuak lurralde historikoen arabera bereizita, eta horien barruan apustuak egin diren lokalen mota kontuan hartuta.

Sariei dagokien ehunekoa oso antzekoa da hiru lurralde historikoetan.

Araba: 85,34
Bizkaia: 86,27
Gipuzkoa : 85,88

Lurralde Historikoen artetik Bizkaiak biltzen du jardueraren %50etik gora.

Araba: 17,10
Bizkaia: 50,58
Gipuzkoa : 32,33

Eta bilketa garbiaren ehunekoa ere nahiko antzekoa da

Araba: 14,70
Bizkaia: 13,73
Gipuzkoa: 14,12

Dado el evidente interés económico y la importancia que el subsector de las apuestas generales está cobrando dentro del sector del juego, se ha estimado oportuno reflejar los datos referidos a la actividad económica de las empresas adjudicatarias de apuestas en el País Vasco.

Recordar que fue esta comunidad autónoma, la primera en el estado en regular el sistema de apuestas.

En este año pasado, aunque se detecta una disminución de la recaudación, se puede decir que el sector goza de una buena "salud".

En la tabla adjunta se reflejan los datos económicos de mayor entidad (nº de apuestas, recaudación, premios concedidos y recaudación neta), discriminando los datos por TTHH, y dentro de éstos en función del tipo de local donde se han realizado las apuestas.

El % dedicado a premios es muy similar en los tres TTHH

Araba: 85,34
Bizkaia: 86,27
Gipuzkoa : 85,88

Por TTHH es Bizkaia la que concentra más del 50% de la actividad

Araba: 17,10
Bizkaia: 50,58
Gipuzkoa : 32,33

Y el % de recaudación neta también es bastante parecido

Araba: 14,70
Bizkaia: 13,73
Gipuzkoa: 14,12

## 2015eko datuak guztira
## Datos totales 2015

| L. historikoen eta lokal/kanal-motaren arabera<br>Por T.H. y tipo de local/canal | | Apustu kop.<br>nº apuestas | Bildutako dirua<br>Recaudación | Sariak<br>Premios | Garbia<br>Neto |
|---|---|---|---|---|---|
| ARABA | **Apustu-lokala**<br>Local de apuestas | 378.704 | 3.313.907,50 € | 2.818.021,94 € | 495.885,56 € |
| | **Gaitutako aretoak**<br>Salón Habilitados | 603.995 | 4.831.278,69 € | 3.955.333,57 € | 876.443,63 € |
| | **Kornerrak**<br>Corners | 621.507 | 5.614.640,02 € | 4.762.675,19 € | 851.465,79 € |
| | **Ostalaritza**<br>Hostelería | 2.468.323 | 18.887.951,47 € | 15.755.971,27 € | 3.149.977,40 € |
| | **Online kanala**<br>Canal online | 863.129 | 11.662.717,37 € | 10.522.112,97 € | 1.140.604,40 € |
| BIZKAIA | **Apustu-lokala**<br>Local de apuestas | 2.677.073 | 19.559.360,96 € | 16.912.321,36 € | 2.647.039,60 € |
| | **Gaitutako aretoak**<br>Salón Habilitados | 1.279.708 | 12.910.015,89 € | 11.061.911,03 € | 1.848.068,41 € |
| | **Kornerrak**<br>Corners | 2.995.587 | 20.908.211,43 € | 17.474.048,80 € | 3.434.199,08 € |
| | **Ostalaritza**<br>Hostelería | 7.817.293 | 44.021.895,24 € | 36.595.451,74 € | 7.426.443,60 € |
| | **Online kanala**<br>Canal online | 3.001.292 | 42.894.377,12 € | 38.981.200,32 € | 3.913.176,80 € |
| GIPUZKOA | **Apustu-lokala**<br>Local de apuestas | 1.390.945 | 10.817.978,00 € | 9.251.570,03 € | 1.566.407,97 € |
| | **Gaitutako aretoak**<br>Salón Habilitados | 665.647 | 5.600.907,99 € | 4.634.611,19 € | 966.343,50 € |
| | **Kornerrak**<br>Corners | 1.343.338 | 11.902.604,22 € | 9.986.214,90 € | 1.916.342,52 € |
| | **Ostalaritza**<br>Hostelería | 4.476.219 | 33.360.196,90 € | 27.912.623,58 € | 5.447.573,32 € |
| | **Online kanala**<br>Canal online | 1.834.280 | 25.543.926,53 € | 23.124.363,60 € | 2.419.562,93 € |
| **GUZTIRA<br>TOTAL** | | **32.417.040** | **271.829.969,33 €** | **233.748.431,49 €** | **38.099.534,51 €** |

## Jardueraren ehunekoak Lurralde historikoen arabera (2014 – 2015 urteetako azterketa konparatiboa)
Porcentajes de actividad por Territorio Histórico (Comparativo 2014 - 2015)

| | Apustu kop. / Nº Apuestas | | Bildutako dirua / Recaudación | | Sariak / Premios | | Garbia / Neto | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | **2015** | 2014 | **2015** | 2014 | **2015** | 2014 | **2015** |
| Araba | 16,54% | **15,23%** | 18,20% | **16,30%** | 18,35% | **16,18%** | 17,28% | **17,10%** |
| Bizkaia | 55,20% | **54,82%** | 50,74% | **51,61%** | 50,65% | **51,78%** | 51,31% | **50,58%** |
| Gipuzkoa | 28,26% | **29,95%** | 31,06% | **32,09%** | 31,00% | **32,05%** | 31,41% | **32,33%** |

## VI. grafikoa: Apustu-jardueraren ehunekoa (Lurralde historikoen arabera)
Gráfico VI: Porcentajes de actividad de apuestas (Por TTHH)
























**VII. grafikoa: 2014-2015 urteetako apustuen azterketa konparatiboa**
Gráfico VII: Apuestas Comparativo 2014-2015



## Jarduearen ehunekoak enpresa esleipendunen arabera
Porcentajes de actividad por empresa adjudicataria

| Enpresa<br>Empresa | Apustu kop.<br>Nº apuestas | | Bildutako dirua<br>Recaudación | | Sariak<br>Premios | | Garbia<br>Neto | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2014 | **2015** | 2014 | **2015** | 2014 | **2015** | 2014 | **2015** |
| **1. esleipenduna**<br>Adjudicataria 1 | 55,31% | **58,18%** | 52,76% | **53,31%** | 53,33% | **53,92%** | 49,22% | **49,58%** |
| **2. esleipenduna**<br>Adjudicataria 2 | 32,69% | **31,36%** | 36,82% | **37,69%** | 37,01% | **37,63%** | 35,64% | **38,04%** |
| **3. esleipenduna**<br>Adjudicataria 3 | 12,00% | **10,46%** | 10,42% | **8,99%** | 9,66% | **8,44%** | 15,14% | **12,39%** |

## VIII. grafikoa: Apustu-jarduearen ehunekoa (enpresa esleipendunen arabera)
Gráfico VIII: Porcentajes de actividad de apuestas (Por empresa adjudicataria)












**IX. grafikoa: 2014-2015 urteetako apustuen azterketa konparatiboa**
**Gráfico IX: Apuestas comparativa 2014-2015**



# J2.8 Diru sarrerak / Tasak
## Ingresos / Tasas

Aurten ere sartu ditugu Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak sortutako diru-sarrerei buruzko datuak; hain zuzen, administrazio-tasengatiko bilketari loturikoak (fiskalak ez direnak). Datuen azterketatik ondorioztatzen da, lurralde historikoaren ikuspuntutik, Bizkaia dela diru gehien biltzen duen lurraldea, beste bi lurraldeetako bilketen batura ere gaindituta.

También este año hemos incluido los datos referidos a ingresos generados por la Dirección de Juego y Espectáculos referidos a la recaudación por tasas administrativas (no fiscales). Del estudio de los datos se infiere que, desde el punto de vista territorial es Bizkaia el territorio que recauda más cantidad, incluso superando la suma de las recaudaciones de los otros dos territorios.

### Diru sarrerak / Ingresos

**Tasen ondoriozko diru sarrerak**
Ingresos por tasas

| Zentro kudeatzailea Centro gestor | 2014ko zenbatekoa Importe 2014 | 2015eko zenbatekoa Importe 2015 |
|---|---|---|
| ARABA | 16.992,77 | 16.014,32 |
| BIZKAIA | 118.826,24 | 103.701,85 |
| GIPUZKOA | 44.153,57 | 44.255,89 |
| Besteak / otros | 18.895,78 | 15.981,08 |
| GUZTIRA / TOTAL | 198.868,36 | 179.953,14 |

Diru-bilketa %9,5 jaitsi da tasen kopuruak behera egin duelako: 2014an 12.461 izapidetu ziren eta 2015ean, berriz, 10.137.

Se ha producido una bajada de la recaudación del 9,5%, y es debida a un descenso del número de tasas tramitadas, pasando de 12.461 en 2014 a 10.137 en 2015.

### X. grafikoa: Tasengatiko diru-sarrerak lurralde historikoen arabera (2014-2015 urteetako azterketa konparatiboa
Gráfico X: Ingresos por tasas por TTHH (comparativo 2014-2015)



## Administrazio-tasak kontzeptuen arabera
Tasas administrativas por concepto

### Tasa kopurua / número de tasas

| Tasa-kopurua<br>Número de tasas | ARABA | GIPUZKOA | BIZKAIA | BESTEAK<br>OTROS(1) | Guztizko orokorra<br>Total general |
|---|---|---|---|---|---|
| **Aldaketa handitzea(AH)**<br>Ampliación / Cambio (AC) | | | 1 | 32 | **33** |
| **Instalatzeko baimena (IB)**<br>Autorización de Instalación (AI) | 88 | 177 | 537 | | **802** |
| **Enpresaren baimena (EB)**<br>Autorización Empresa (AJ) | | 3 | 3 | | **6** |
| **Lokalaren baimena (LB)**<br>Autorización Local (AL) | | 2 | 8 | | **10** |
| **Enpresa-baimenaren alta (EBA)**<br>Alta Autorización Empresa (AO) | | 3 | 3 | | **6** |
| **Baimena ematea (BE)**<br>Autorización Permiso (AP) | 35 | 28 | 83 | | **146** |
| **Altzari-aldaketa (AA)**<br>Cambio de Mueble (CD) | | | 6 | 3 | **9** |
| **Makina-aldaketa (MA)**<br>Cambio de Maquina (CJ) | 569 | 1.529 | 4.506 | 4 | **6.608** |
| **Lokal-aldaketa (LA)**<br>Cambio de local (CL) | 33 | 222 | 594 | | **849** |
| **Lanbide-txartelaren alta (LT)**<br>Alta Carnet profesional (CP) | 3 | 1 | 17 | | **21** |
| **Bertsio-aldaketa (BA)**<br>Cambio de versión (CV) | | | 7 | 32 | **39** |
| **Generikoa** / Genérico **(GE)** | 32 | 109 | 218 | 22 | **381** |
| **Homologazioa** / Homologación **(HM)** | 1 | | 1 | 66 | **68** |
| **Merkataritza-proba (MP)**<br>Prueba Comercial (PC)° | 5 | 5 | 31 | | **41** |
| **Permuta Local (PL)** /Lokal-trukea (LT) | 14 | 20 | 13 | | **47** |
| **Rifak** / Rifas **(RF)** | 2 | 1 | 11 | | **14** |
| **Baimena berritzea (BB)**<br>Renovación permiso (RN) | 73 | 243 | 514 | 2 | **832** |
| **Eskualdaketa (EK)**<br>Transmisión (TR) | 5 | 20 | 89 | | **114** |
| **Tasen guztizko kop.**<br>Total N° Tasas | **881** | **2.416** | **6.679** | **161** | **10.137** |

(1) **Egoitza fiskala Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo duten enpresak**
Empresas cuyo domicilio fiscal está fuera de la CAPV

Aipatu behar da 2015. urtean, "Makina-aldaketa MA" eta Lokal-aldaketa LA" izapideak egiteko orduan, espediente telematikoen kopurua aurrez aurrekoena baino handiagoa izan dela. MA izapideetan %63,6 telematikoak dira eta LA izapideetan %61,07.

Es digno de reseñar que en este año 2015 y en los trámites de "cambio de máquina CJ" y "cambio de local CL" los expedientes telemáticos ya superan a los presenciales en número.
En CJ, el 63,6% son telemáticos y en CL, el 61,07%.

## Tasen zenbatekoa (Bildutako dirua)
Importe de las tasas (Recaudación)

| Zenbatekoak<br>Importes | ARABA | GIPUZKOA | BIZKAIA | BESTEAK<br>OTROS | Guztizko orokorra<br>Total general |
|---|---|---|---|---|---|
| **Aldaketa handitzea(AH)**<br>Ampliación / Cambio (AC) | | | 491,87 | 3.346,24 | **3.838,11** |
| **Instalatzeko baimena (IB)**<br>Autorización de Instalación (AI) | 1.529,49 | 3.034,56 | 9.096,10 | | **13.660,15** |
| **Enpresaren baimena (EB)**<br>Autorización Empresa (AJ) | | 522,90 | 522,90 | | **1.045,80** |
| **Lokalaren baimena (LB)**<br>Autorización Local (AL) | | 836,56 | 3.346,24 | | **4.182,80** |
| **Enpresa-baimenaren alta (EBA)**<br>Alta Autorización Empresa (AO) | | 522,90 | 522,90 | | **1.045,80** |
| **Baimena ematea (BE)**<br>Autorización Permiso (AP) | 1.220,10 | 1199,16 | 2.974,50 | | **5.393,76** |
| **Altzari-aldaketa (AA)**<br>Cambio de Mueble (CD) | | | 418,32 | 209,16 | **627,48** |
| **Makina-aldaketa (MA)**<br>Cambio de Maquina (CJ) | 5.821,75 | 14.504,44 | 43.825,93 | 47,40 | **64.199,52** |
| **Lokal-aldaketa (LA)**<br>Cambio de local (CL) | 366,20 | 2.179,85 | 5.682,80 | | **8.228,85** |
| **Lanbide-txartelaren alta (LT)**<br>Alta Carnet profesional (CP) | 41,85 | 27,89 | 251,09 | | **320,83** |
| **Bertsio-aldaketa (BA)**<br>Cambio de versión (CV) | | | 488,04 | 2.231,04 | **2.719,08** |
| **Generikoa** / Genérico **(GE)** | 2.252,29 | 8.620,26 | 15.931,35 | 2.932,03 | **29.735,93** |
| **Homologazioa** / Homologación **(HM)** | 69,72 | | 69,72 | 7.180,33 | **7.319,77** |
| **Merkataritza-proba (MP)**<br>Prueba Comercial (PC)° | 348,60 | 348,60 | 2.161,32 | | **2.858,52** |
| **Permuta Local (PL)** /Lokal-trukea (LT) | 289,20 | 403,00 | 279,70 | | **971,90** |
| **RIFAK** / Rifas **(RF)** | 236,34 | 118,17 | 1.299,87 | | **1.654,38** |
| **Baimena berritzea (BB)**<br>Renovación permiso (RN) | 1.079,61 | 3.254,68 | 7.159,81 | 34,88 | **11.528,98** |
| **Eskualdaketa (EK)**<br>Transmisión (TR) | 248,85 | 1.919,70 | 3.531,30 | | **5.699,85** |
| **Tasen guztizko zenbatekoa**<br>Total importe Tasas | **16.014,32** | **44.255,89** | **103.701,85** | **15.981,08** | **179.953,14** |

**XI. grafikoa: Tasak (bildutako tasen kopurua, zenbatekoa eta ehunekoa lurralde historikoen arabera)**
Gráfico XI: Tasas (número de tasas recaudadas, importe y porcentaje por TTHH)






# J2.9 Joko arloan izapidetutako zehapen espedienteak eta errekurtsoak
Expedientes sancionadores y recursos tramitados en materia de juego

## Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako lege aholkularitza arloan 2015. urtean izapidetutako espedienteak.
Expedientes tramitados en el área de asesoría jurídica de la dirección de juego y espectáculos durante el año 2015.

Hurrengo tauletan agertzen dira Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako Lege Aholkularitza Arloan izapidetutako espediente guztiak, mota hauek bereizita:

A) Lege hauen aurkako arau-hausteen ondoriozko zehapen-espedienteak: Jokoa Arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legea, Ikuskizunei eta Jolas Jarduerei buruzko azaroaren 10eko 4/1995 Legea eta kirol-ikuskizunetan egon daitezkeen Indarkeria, Arrazakeria, Xenofobia eta Intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legea.

B) Egindako errekerimenduak eta ohartarazpenak, 4/1991 eta 4/1995 legeei loturik.

C) Joko-lokaletan sartzeko debekuari buruzko espedienteak, Jokoa Arautzeko Legearen 23.4.c artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

D) Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren eskumeneko gaietan emandako ebazpenen kontra jarritako gora jotzeko errekurtsoen ebazpena.

Se exponen en las siguientes tablas la totalidad de expedientes tramitados en el área de asesoría jurídica de la Dirección de Juego y Espectáculos, diferenciando los siguientes tipos:

A) Expedientes sancionadores por infracciones a la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, de Reguladora del Juego, a la Ley 4/1995, de 10 de noviembre, de Espectáculos y Actividades Recreativas y a la Ley 19/2007, de 11 de julio, contra la Violencia, el Racismo, la Xenofobia y la Intolerancia en el deporte.

B) Requerimientos y apercibimientos efectuados, relativos a dichas leyes 4/1991 y 4/1995.

C) Expedientes relativos a la prohibición de entrada en locales de juego, en los términos previstos en el artículo 23.4.c de la Ley Reguladora del Juego.

D) Resolución de los recursos de alzada interpuestos contra las Resoluciones dictadas en materias de la competencia de la Dirección de Juego y Espectáculos.

### A.- Zehapen-espedienteak
Expedientes sancionadores

| **2015eko zehapen espediente guztiak**<br>Total de expedientes sancionadores en 2015 | | **159** |
|---|---|---|
| **2015ean hasitako espedienteak** / Expedientes iniciados 2015 | | 111 |
| **2015ean ebatzitakoak** / Resueltos en 2015 | 62 | |
| **2015ean ebatzi gabe daudenak** / Pendientes de resolución en 2015 | 49 | |
| **Aurreko urtetan hasitako espedienteak**<br>Expedientes iniciados en año anteriores | | 48 |

| **Arau-haustea egin zen lurraldearen araberako espediente guztiak**<br>Total de expedientes por territorio donde se cometió la infracción | **159** |
|---|---|
| Araba | 21 |
| Bizkaia | 93 |
| Gipuzkoa | 45 |

## A1.- Jokoaren arloko zehapen-espedienteak
## Expedientes sancionadores en materia de juego

Izapidetutako zehapen-espediente guztien artean, 29 dira Jokoa Arautzeko 4/1991 Legearen kontrako arau-hausteengatik. Espedienteak hurrengo tauletan daude banakatuta egintza-mota, arau-haustearen larritasuna eta egintzak zein lurralde historikotan gauzatu ziren kontuan izanda. Nabarmentzekoak dira, azkenik, jokorako elementuak zigilatu edo konfiskatzeko kautelazko neurriak eman ziren espedienteen kopurua..

Del total de expedientes sancionadores tramitados, 29 se corresponden con infracciones a la Ley 4/1991 Reguladora del Juego. Se desglosan en las tablas siguientes los expedientes atendiendo a la naturaleza de los hechos, la gravedad de la infracción y al Territorio Histórico donde se cometieron. Se resalta en último término el número de expedientes en los que se decretaron medidas cautelares de precinto o incautación de elementos de juego.

Arlo honetan izapidetutako espedienteen kopurua %27,5 jaitsi da ekitaldi honetan; hain zuzen, batez ere adingabeei jokatzen uzteagatik, legez kontrako jokoagatik eta aurretik erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe ausazko konbinazioa antolatzeagatik irekitako espediente-kopuruaren jaitsiera txiki batengatik.

El número de expedientes tramitados en esta materia ha disminuido un 27,5% en este ejercicio, debido principalmente a un pequeño decremento en los expedientes incoados por permitir el juego a menores, por juego ilegal y por la organización de combinaciones aleatorias sin presentar la declaración responsable.

| **2015eko Jokoaren arloko zehapen espediente guztiak**<br>Total de expedientes sancionadores en materia de juego en 2015 | | **29** |
|---|---|---|
| **2015ean hasitako espedienteak** / Expedientes iniciados 2015 | | 18 |
| **2015ean ebatzitakoak** / Resueltos en 2015 | 6 | |
| **2015ean ebatzi gabe daudenak** / Pendientes de resolución en 2015 | 12 | |
| **Aurreko urtetan hasitako espedienteak**<br>Expedientes iniciados en año anteriores | | 11 |

| **Arau-hauste diren egintzen ondorioz izandako espediente guztiak**<br>Total de expedientes por hechos constitutivos de infracción | | **29** |
|---|---|---|
| **Legez kontrako jokoa** / juego ilegal | | 10 |
| **Adingabeei jokatzen uztea** / permitir juego a menores | | 11 |
| **Ordutegia ez betetzea** / incumplimiento del horario | | 0 |
| **Joko eta ostalaritzarako lokalen bereizketa**<br>Separación de dependencias de juego y hostelería | | 5 |
| **Largetsitakoak** /sobreseídos | 1 | |
| **Makinetan irregulartasunak** / irregularidades en máquinas | | 1 |
| **Largetsitakoak** /sobreseídos | 1 | |
| **Aurretik erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe ausazko konbinazioa antolatzea**<br>Organizar combinación aleatoria sin presentar declaración responsable previa | | 1 |
| **Bingo jokoetan irregulartasunak** / irregularidades en juego de Bingo | | 0 |
| **Makinen kopurua gainditzea** / sobrepasar el número de máquinas | | 1 |

| **Arau-haustearen araberako espediente guztiak**<br>Total de expedientes por tipo de infracción | **29** |
|---|---|
| **Oso larriak** / muy graves | 5 |
| **Larriak** / graves | 7 |
| **Arinak** / leves | 2 |
| **Largetsitakoak** / sobreseídos | 2 |
| **2015ean ebatzi gabe daudenak**<br>Pendientes de resolución en 2015 | 13 |

| **Arau-haustea egin zen lurraldearen araberako espediente guztiak**<br>Total de expedientes por territorio donde se cometió la infracción | **29** |
|---|---|
| Araba | 5 |
| Bizkaia | 19 |
| Gipuzkoa | 5 |

| **Konfiskatzeko kautelazko neurria duten espedienteak**<br>Expedientes con medida cautelar de decomiso | **10** |
|---|---|

## B.- Errekerimenduak / Requerimientos

| **ERREKERIMENDUAK GUZTIRA**<br>TOTAL DE REQUERIMIENTOS | **0** |
|---|---|
| **Joko** / Juego | 0 |

## C.- Joko-lokaletan sartzea debekatzeko espedienteak

### Expedientes de prohibición de entrada a locales de juego

Jokoa Arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 23.4.c artikuluak Segurtasun Sailari ahalmena ematen dio joko-lokaletan sarrera debekatzeko, betiere horretarako bideratutako espedientea izapidetu ondoren, pertsona gehienez urtebeteko epean debekatuen zerrendan sartuz.

El artículo 23.4.c de la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, Reguladora del Juego, faculta al Departamento de Seguridad, previa tramitación de expediente instruido al efecto, prohibir la entrada a locales de juego mediante su inclusión en la relación de prohibidos por un plazo máximo de un año.

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak 2015. urtean zehar 2 espediente izapidetu ditu; biak kasinoetan sartzeko debekuari buruzkoak –1 Gran Casino Bilbaori dagokio eta 1 Gran Casino Kursaali– sartzeko debekuari buruzkoak.

Durante el año 2015 la Dirección de Juego y Espectáculos ha tramitado un total de 2 expedientes, ambos relativos a prohibición de entrada a casinos -de los que 1 corresponde al Gran Casino Bilbao y 1 al Gran Casino Kursaal.

| **Joko-lokaletan sartzea debekatzeko espedienteak**<br>Expedientes de prohibición de entrada a locales de juego | **2** |
|---|---|
| **2015ean hasitako espedienteak** / expedientes iniciados 2015 | 2 |
| **2015ean hasi eta ebatzitakoak** / iniciados y resueltos en 2015 | 1 |
| **2015ean ebatzi gabe daudenak** /pendientes de resolución en 2015 | 1 |
| **2014an hasi eta 2015ean ebatzitako espedienteak**<br>Expedientes iniciados en 2014 y resueltos en 2015 | 0 |

| Kasinoetan sartzea debekatzeko espedienteak<br>Expedientes de prohibición de entrada a casinos | 2 |
|---|---|
| **2015ean hasitako espedienteak** / expedientes iniciados 2015 | 2 |
| **2015ean hasi eta ebatzitakoak** / iniciados y resueltos en 2015 | 1 |
| **2015ean ebatzi gabe daudenak** /pendientes de resolución en 2015 | 1 |
| **2014an hasi eta 2015ean ebatzitako espedienteak**<br>Expedientes iniciados en 2014 y resueltos en 2015 | 0 |

| Bingoetan sartzea debekatzeko espedienteak<br>Expedientes de prohibición de entrada a bingos | 0 |
|---|---|
| **2015ean hasitako espedienteak** / expedientes iniciados 2015 | 0 |
| **2015ean hasi eta ebatzitakoak** / iniciados y resueltos en 2015 | 0 |
| **2015ean ebatzi gabe daudenak** /pendientes de resolución en 2015 | 0 |
| **2014an hasi eta 2015ean ebatzitako espedienteak**<br>Expedientes iniciados en 2014 y resueltos en 2015 | 0 |

## D.- Gora jotzeko errekurtsoen espedienteak
## Expedientes de recursos de alzada

Hurrengo tauletan bereizten dira zehapen-ebazpenen kontra jarritako gora jotzeko errekurtsoengatik izapidetutako prozedurak, baita zehapenezkoak ez diren beste ebazpen batzuei buruzkoak ere.

Iazko ekitaldiaren aldean, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren ebazpenen aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoen kopuruak bere hartan jarraitu du.

Joko arloko zehapen-ebazpenen aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoen kopurua zein joko arloan administrazioarekiko auzi-errekurtsoen kopurua handitu dira. Ikuskizunen arloan zehapen-ebazpenen aurkako gora jotzeko errekurtsoen kopuruak behera egin du, baita administrazioarekiko auzi-errekurtsoen kopurua.

Ebazpen ezesleen, baiesleen eta partzialki baiesleak direnen kopurua ere kuantifikatzen da, baita administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratutakoena ere..

Puntu honetan adierazi behar da jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen kopurua iazkoak baino berdina dela, 2015ean aurkeztu ziren administrazioarekiko auzi-errekurtso gehienak 2014an izapidetutako espedienteei dagozkiela kontuan hartuta, zehapen-espedienteei loturik ondorioztatu behar da epaitegietan dauden auzien indizea izapidetutako espedienteen % 8,3 dela, iazkoa baino antzekoa.

Se distinguen en las tablas siguientes los procedimientos tramitados por recursos de alzada interpuestos contra resoluciones sancionadoras y los relativos a otras resoluciones de contenido no sancionador.

Se ha mantenido, respecto al ejercicio anterior, el número de recursos de alzada interpuestos contra resoluciones de la Dirección de Juego y Espectáculos.

Ha aumentado tanto el número de recursos de alzada interpuesto contra resoluciones sancionadoras en materia de juego como el número de recursos contencioso-administrativos interpuestos en materia de juego. En materia de espectáculos ha disminuido tanto el número de recursos de alzada interpuesto contra resoluciones sancionadoras como el número de recursos contencioso-administrativos interpuestos.

Se cuantifica también el número de resoluciones desestimatorias, estimatorias y de estimación parcial, así como los que han sido objeto de impugnación contencioso-administrativa.

Ha de comentarse, en este punto, que el número de recursos contencioso-administrativos interpuestos es el mismo que el número en 2014. Teniendo en cuenta que los recursos contencioso-administrativos presentados en 2015 se corresponden, en su mayoría, con expedientes tramitados en 2014, ha de concluirse que el índice de litigiosidad judicial, en cuanto a expedientes sancionadores se refiere, se mantiene semejante al ejercicio anterior, y es de un 8,3% de los expedientes tramitados.

| | |
|---|---|
| **2015ean ebatzitako gora jotzeko errekurtsoak**<br>Recursos de alzada resueltos en 2015 | 19 |
| **Ebazpen zehatzaileen kontrakoak** / contra resoluciones sancionadoras | 12 |
| **Zehatzaileak ez diren ebazpenen kontrakoak**/ contra resoluciones no sancionadoras | 7 |
| **B makina instalatzeko baimena iraungitzea** / Extinción de autorización de instalación de máquina B | 3 |
| **Joko arloko erreklamazioa ez onartzea**/desestimación de reclamación de juego | 1 |
| **Baimen-zozketan ez onartzea** / Inadmisión al sorteo de permisos | 2 |
| **joko-lokaletan sarrera debekatzeko ebazpena**<br>Resolución de prohibición acceso s local de juego | 1 |

| | |
|---|---|
| **Epez kanpo aurkezteagatik ez onartuak** /inadmitidos por fuera de plazo | 1 |
| **Baiesleak** /estimatorios | 0 |
| **Partzialki baiesleak** /estimación parcial | 1 |
| **Ezesleak** /desestimatorios | 17 |
| **Atzera egindakoak** /desistido | 0 |
| **Administrazioarekiko Auzibidera eramandakoak**<br>Impugnados en vía contencioso–administrativa | 11 |
| **Ebazpen zehatzaileengatik** /por resoluciones sancionadoras | 10 |
| **Beste ebazpen mota batengatik / por otro tipo de resolución** | 1 |

## E.- Erreklamazio orriak
Hojas de reclamaciones

| Izapidetutako erreklamazio guztiak<br>Total de reclamaciones tramitadas | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira<br>Total |
|---|---|---|---|---|
| **Jokoaren arloan** / Área de juego | 10 | 71 | 19 | **100** |

Kontuan izan behar da Konstumobide Kontsumoko Euskal Institutua martxan jartzearekin batera nabarmen egin dutela behera Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzan jasotako erreklamazioek, kexek edo salaketek; batik bat, orain, Kontsumobidek berak jasotzen dituelako horiek guztiak, eta, horien edukia aztertu ostean, kontratu ez betetzeekin lotutakoak ebazten ditu, eta gainerakoak geuri igortzen dizkigute.

Debe tenerse en cuenta que con la puesta en marcha del Instituto Vasco de Consumo, Kontsumobide, han disminuido notablemente las reclamaciones, quejas o denuncias que recibe la Dirección de juego y Espectáculos. Ello es debido a que, en principio, todas ellas son recepcionadas por Kontsumobide, quien una vez analizado su contenido, se ocupa de tramitar las relacionadas con incumplimientos contractuales y nos remite el resto.

Bizkaian (kopuru hadiena), erreklamazio horietatik, 52 apustuenak izan ziren, 13 joko aretoetan jarri ziren, 3 ostalaritzako lokaletan dauden makinez izan ziren, 2 kasinoan jarri ziren eta 1 bingoan. Horiek guztiak gaztelaniaz aurkeztu ziren. Erreklamazio-jartzaileak, aldiz, gizonezkoak izan ziren ia guztiak, bi izan ezik: joko aretoko erreklamazioetako bat eta ostalaritzako establezimenduko makinagatik jarritako beste bat emakumeek aurkeztutakoak izan ziren. Badirudi jokoaren mundua gizonezkoena dela, batez ere, edota, agian, emakumea ezkutuago edo edo diskretuago dabilela jokoan, gutxiago erreklamatzen baitu itxura batean.

En Bizkaia (el mayor número), de estas reclamaciones de juego 52 se refieren a apuestas, 13 a salones de juego, 3 a máquinas instaladas en locales de hostelería, 2 al casino y 1 al bingo. Todas ellas se formularon en castellano. Los reclamantes son casi todos hombres, salvo en dos casos: una de las reclamaciones de salón y otra de máquina en establecimiento hostelero están presentadas por mujeres. Se ve que el mundo del juego es mayoritariamente masculino, y quizá también se pueda decir que la mujer se expone menos o lleva con mayor discreción su relación con el juego, al reclamar menos.

## J2.10 Ikuskaritza lana (Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitatea)
Actividad inspectora (Unidad de juego y espectáculos de la Ertzaintza)

### Egindako ikuskapenak
Inspecciones realizadas

| | 2014 | 2015 |
|---|---|---|
| **Joko-lokalak** / Locales de juego | 202 | **210** |
| **Kasinoak** / Casinos | 300 | **331** |
| **Bingoak** / Bingos | 460 | **531** |
| **Joko eta jolas-aretoak**<br>Salones de Juego y recre. | 462 | **409** |
| **Apustu-lokalak** / Locales de apuestas | 60 | **52** |
| **Ostalaritzako makinak**<br>Máquinas hostelería | 3.253 | **2.646** |
| **Jokoaren zaintza eta kontrola**<br>Vigilancia y control juego | 463 | **408** |
| **GUZTIRA** / TOTAL | **5.215** | **4.587** |

**XII. grafikoa: Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitatearen ikuskaritza-lana (urte arteko aldakuntza)**
Gráfico XII: Actividad inspectora de la Unidad de Juego y Espectáculos de la Ertzaintza (Variación interanual)




Joko-lokalen kopurua handitu da, zortzi joko-areto berri ireki dituztelako eta horren ondorioz, segurtasunari buruzko ikuskapenen kopurua ere neurri berean handitu da.

Jarduerari buruzko ikuskapenei dagokienez, kontu hauek azpimarratu behar dira:

Bingoen eta kasinoen gaineko jarduerari buruzko ikuskapenen kopurua iazko kopuru berean mantentzen da, baina ikuskapen horien amaierako kopurua handitu da, bi lokal motetan joko-elementuen gaineko zaintza eta kontrola handitu direlako.

Joko-aretoei eta apustu-lokalei dagokienean, lokalen jarduerari buruzko ikuskapen orokorrak mantendu dira, eta sistema interkonektatuen zein B makinen sarien ehunekoaren gaineko kontrola gutxitu da. Aitzitik, ostalaritza-makinek itzultzen duten ehunekoaren gaineko kontrola mantentzen da eta makina horien dokumentazioaren gaineko zaintza eta kontrola gutxitu dira.

Aumenta el número de locales de juego con la apertura de ocho nuevos salones de juego lo que lleva aparejada el mismo número de inspecciones de seguridad.

En lo que respecta a las inspecciones de actividad, caben destacarse las siguientes cuestiones:

Las inspecciones de actividad se mantienen en la cifras del pasado año sobre bingos y casinos, debiendo atribuirse el incremento de la cifra final a un aumento de la vigilancia y control sobre los elementos de juego de ambos locales.

En lo que respecta a los salones de juego y locales de apuestas, se mantienen las inspecciones generales sobre la actividad de los locales, disminuyendo el control sobre los sistemas interconectados y el porcentaje de premios de las máquinas B. Por el contrario se mantiene el control sobre el porcentaje de devolución en máquins de hostelería disminuyendo la vigilancia y control sobre la documentación de estas.

Zaintzari eta kontrolari dagokienez, ordutegien gaineko kontrolak handitu dira eta gainerako jardueren gainekoak murriztu, besteak beste, adingabekoen gaineko kontrol zehatza, errekerimenduen egiaztapena eta zehapen-espedienteek horiek berrestea.

La vigilancia y control se materializa en un aumento de los controles de horario y una disminución en el resto de actividades como son el control específico de menores, la constatación de requerimientos y la ratificación por expedientes sancionadores.

Aipatu behar da adingabekoak jokoan dabiltzan antzemateko kanpaina. Ertzaintzaren herritarren babeseko Unitateek burutu zuten abuztuan zehar eta horren ondorioz hiru espediente ireki ziren: bi Gipuzkoan eta bat Bizkaian.

Cabe reseñarse la campaña de detección de juego en menores llevada a cabo por las Unidades de protección ciudadana de la Ertzaintza durante el mes de agosto, que finalizó con tres expedientes: dos en Gipuzkoa y uno en Bizkaia.

# J03

## Jokoaren arloan 2015eko agenda
## Agenda 2015 del área de Juego

Hona hemen Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak 2015. urtean zehar Jokoaren arloan dagokion jardun-eremuan burututako jardueraren laburpena.

He aquí un resumen de la actividad de la Dirección de Juego y Espectáculos en su ámbito de actuación de Juego durante el año 2015.

2015ean Zuzendaritzako langileei "Harrerako eskuliburua" banatu zaie, dokumentu horren helburua da Zuzendaritzan lan egiten dutenei zein etorriko direnei lehenengo ikuspegia ematea.

En el año 2015 se ha difundido entre el personal de la Dirección el "Manual de acogida", documento preparado para dar una primera visión de la Dirección para el personal que trabaja en ella y para el personal que se vaya incorporando a la misma.

Joko eta Ikuskizunen arloak kudeaketa egiteko aplikazioaren garapena eta egokitasunarekin jarraitzen dugu.

Se continúa con el desarrollo y adecuación de la aplicación para la gestión del juego y los espectáculos denominada Joiku.

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren web-orria eguneratu da. Webgune horren barruan ikuskizunen eta jokoaren arloak eraginpean hartzen dituen araudia dago, baita jokoaren enpresa-sektorearentzako datu interesgarriak (homologazioak, produktuen sailkapena, argitalpenak, etab.) eta jarduera horiei buruzko hainbat informazio ere.

Se actualiza la página WEB de la Dirección de Juego y Espectáculos. Esta WEB contiene la normativa que afecta a las áreas de espectáculos y juego, así como datos de interés para el sector empresarial de juego (homologaciones, clasificación de productos, publicaciones, etc.) e información diversa sobre estas actividades.

2015ean zehar lan egin dugu Euskadiko Joko Araudia Integrala prestatzen, joko-azpisektore guztiak arautuko dituen testu legal bakarra sortzeko asmoz, kohesionatuagoa eta koherenteagoa. Lanari buru emango zaio 2016an, dagokion Dekretu arautzailea onartzen denean. Proiektu honek zeharkako-materiak ere arautzen ditu, hala nola, publizitatearena, planifikazioarena, joko-arduratsuarena...

A lo largo de 2015 se ha seguido trabajando en la preparación del denominado Reglamento Integral de Juego en Euskadi, como un único texto legal que agrupe la normativa reguladora de todos los distintos subsectores de juego dándole mayor cohesión y coherencia, que culminará en el año 2016 con la aprobación del Decreto. En dicho proyecto, se han tenido en cuenta la regulación de medidas transversales como la publicidad, la planificación, el juego responsable...

Argitaratu dugu Euskal Autonomi Erkidegoko Jokoaren II. Liburu Zuria; honen bidez, lortzen dugu joko-sektorearen ikuspegi orokorra ekartzea, joera eta hobekuntza mailan sektorearen diagnostiko bat egitea eta erronkak identifikatzea – eta, bide batez, joko-sektorearen egoera berriak eragindako erronka horiei aurre egiteko prestatzea –.

Se ha publicado el II Libro Blanco del Juego en la Comunidad Autónoma del País Vasco que permite aportar una visión del conjunto del sector de juego, realizar un diagnóstico del sector a nivel de tendencias y mejoras y la identificación de retos y preparación para asumir dichos retos identificados como consecuencia del nuevo escenario del sector de juego.

Sentsibilizazio-kanpainei dagokienez, arlo honetan, 2015ean kanpaina bat egin da komunikabideetan goiburu horrekin "18 urte bete arte jokoz kanpo zaude (adingabeentzat jokoa eta apustuak debekatuta daude)". Kanpaina hori bigarren hezkuntzako ikastetxeetara eta batxillergoko ikastetxeetara helarazi zen.

En relación con las campañas de sensibilización, en esta cuestión, en 2015 se ha realizado una campaña en medios de comunicación con el lema "hasta los 18 años estas fuera de juego (el juego y las apuestas están prohibidos a menores de edad)". Dicha campaña se hizo llegar a los centros educativos de secundaria y a centros de

Bachillerato.

2015eko ekainean Euskadiko Apustu Batzordeak ohiko bilera egin zuen, honako gai-zerrendaz: aurreko bileraren akta onartzea, hala badagokio; 2014ko memoria, apustuen jarduerarena; Euskadiko jokoaren araudi orokorraren aurkezpena; eta eskaerak eta galderak.

En junio de 2015 se celebró reunión ordinaria de la Comisión de Apuestas de Euskadi, en la que se trataron los siguientes temas: aprobación, si procede, del acta de la reunión anterior; Memoria 2014 de la actividad de apuestas; presentación del reglamento integral del juego de Euskadi; y ruegos y preguntas.

Euskal Joko Batzordea
Batzordeak bilera bat egin du 2015ean, ekainean.

Consejo Vasco de Juego
Dicho consejo se ha reunido en una ocasión en junio 2015.

2015eko ekainaren 26ko bileran honakoa izan zen gai-zerrenda:

- 2014ko Jokoaren memoria.
- Euskadiko Jokoaren Araudi Orokorraren informazioa.

En la convocatoria del 26/6/2015 se trataron los siguientes temas:

- Memoria de Juego 2014.
- Información sobre el Reglamento Integral del Juego de Euskadi.

Jokoaren arloko araudi hau argitaratu da:

Publicación de la siguiente normativa en materia de juego:

Agindua, 2015eko ekainaren 16koa, Segurtasuneko sailburuarena, urriaren 4ko 380/1994 Dekretua garatzen duena. Dekretu horren bitartez, Joko Aretoen eta Jolas Aretoen Araudia onartu zen (EHAA, 2015eko ekainaren 25ekoa, 118. zk.).

Orden de 16 junio de 2015, de la Consejera de Seguridad, por la que se desarrolla el Decreto 380/1994, de 4 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos (BOPV de 25 de junio de 2015, nº 118).

Horrela egin zen urriaren 4ko 380/1994 Dekretua garatzen duen Herrizaingo sailburuaren 2000ko abenduaren 21eko Aginduan. Dekretu horren bitartez, Joko Aretoen eta Jolas Aretoen Araudia onartu zen. Aipatutako Araudiak eta, batez ere, –2000. urtean onartu zenetik– Dekretua garatzeko Agindua aplikatzean lortutako esperientziak gomendatzen du garapen-arau gehiago ezartzea, agindu honen bidez, hain zuzen ere; hala, bada, agindu honek aurrekoa ordezkatzen eta indargabetzen du, aretoen baimentze- eta funtzionamendu-baldintzak argiago zehazteko helburuarekin, ostalaritza-zerbitzu osagarriari dagokionez, bereziki.

En desarrollo de dicha disposición se dictó la Orden de 21 de diciembre de 2000, del Consejero de Interior, por la que se desarrolla el Decreto 380/1994, de 4 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos. La experiencia de la aplicación del citado Reglamento y, sobre todo de la Orden de desarrollo, desde su aprobación, en 2000, aconseja el establecimiento de nuevas normas de desarrollo, mediante la publicación de la presente Orden, que sustituye y deroga la anterior, al objeto de determinar más claramente las condiciones de autorización y funcionamiento de los salones, especialmente en lo relativo al servicio complementario de hostelería.

14/2015 Dekretua, otsailaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren araudia bosgarrenez aldatzen duena. Jarduera hasteko orduaren aldaketa

DECRETO 14/2015, de 10 de febrero, de quinta modificación del reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Modificación hora inicio actividad.

Dekretu honek aldatu egiten du otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuan ezarritako bingo-aretoen irekiera-ordutegia, joko-jarduerak egiten diren gainerako lokalen ordutegira egokitze aldera.

El presente Decreto modifica el horario de apertura de las salas de bingo establecido en el Decreto 31/2004, de 10 de febrero, al objeto de asimilarlo al de los demás locales en los que se practican actividades de juego

Joko eta ikuskizun zuzendariak hizlari moduan parte hartu du kongresu hauetan:

- 2015/02/12an, Bartzelonan, ACENCAS

El director de Juego y Espectáculos ha participado como ponente en los siguientes congresos:

- El día 12/02/2015 en Barcelona, ACENCAS

(congreso para el juego responsable).
- 2015/11/17an, Leónean, Congreso del Juego de Castilla-León.
- 2015/12/15ean, Madrilean, ANESAR (asociación española de salones de juego y recreativos)

(congreso para el juego responsable).
- El 17/11/2015 en León, Congreso del Juego de Castilla-León.
- El 15/12/2015 en Madrid, ANESAR (asociación española de salones de juego y recreativos)

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 88 79 – Fax 945 01 87 48

# J04

## Jokoaren eta ikuskizunen jarduerei buruzko euskal araudiaren egitura
Estructura de la normativa vasca sobre actividades de juego y espectáculos

### **Alderdi orokorrak** / Aspectos generales

**Jokoaren Legea (4/1991, azaroaren 8koa)** / Ley de Juego (4/1991, de 8 de noviembre)

**Baimendutako jokoen katalogoa (277/1996 eta 181/2010 dekretuak)**
Catálogo de juegos autorizados (decretos 277/1996 y 181/2010)

**7/2012 Legea, apirilaren 23koa. Horren bidez lege batzuk aldatu dira barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko.**
Ley 7/2012, de 23 de abril, de modificación de diversas leyes para su adaptación a la Directiva2006/123/CE, de 12 de diciembre del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios de mercado interior.

| **Makinak**<br>Máquinas | **Bingoak**<br>Bingos | **Kasinoak**<br>Casinos | **Aretoak**<br>Salones | **Beste joko batzuk**<br>Otros juegos |
|---|---|---|---|---|
| | | **DEKRETUAK / DECRETOS** | | |
| **600/2009 Dekretua, azaroaren 17koa, Joko-makina eta -sistemen Erregelamendua onartzen duena**<br>Decreto 600/2009, de 17 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Máquinas y Sistemas de Juego | **31/2004 Dekretua, otsailaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren Araudia onesten duena**<br>Decreto 31/2004, de 10 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi | **39/2012 Dekretua, martxoaren 20koa, Joko-kasinoen Araudia onartzen duena.**<br>Decreto 39/2012 de 20 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de casinos de juego. | **380/1994 Dekretua, urriaren 4koa, Joko Aretoen eta Jolas Aretoen Araudia onartzen duena**<br>Decreto 380/1994, de 4 de octubre, por el que se aprueba el reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos. | |
| **25/2012 Dekretua, otsailaren 8koa, Makinen Erregelamendua aldatzen duena.**<br>Decreto 25/2012 de 8 de febrero de modificación del reglamento de máquinas. | **32/2012 Dekretua, otsailaren 22koa, Bingo-jokoaren Araudia aldatzen duena.**<br>Decreto 32/2005, de 22 de febrero. Modificación del Reglamento del Bingo | | **277/2000 Dekretua, abenduaren 26koaJoko Areto eta Jolas Aretoen Araudia aldarazi duena**<br>Decreto 277/2000, de 26 de diciembre de modificación del reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos. | **314/1994 Dekretua, Txartel bidezko Jokoa arautzen duena**<br>Decreto 314/1994, por el que se regula el Juego de Boletos |
| | **55/2008 Dekretua, apirilaren 1ekoa, Bingoaren Araudia bigarrenez aldatzen duena.**<br>Decreto 55/2008, de 1 de abril, de 2ª modificación del Rto. Bingo. | | **25/2012 Dekretua, otsailaren 8koa, Aretoen Araudia aldatzen duena.**<br>Decreto 25/2012 de 8 de febrero de modificación del reglamento de salones. | **68/2005 Dekretua, apirilaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko zaldi-lasterketetako apustuei buruzkoa**<br>Decreto 68/2005, de 5 de abril, de Apuestas Hípicas en la Comunidad Autónoma de Euskadi |
| | **620/2009 Dekretua, abenduaren 15ekoa, Bingoaren Araudia hirugarrenez aldatzen duena.**<br>Decreto 620/2009, de 15 de diciembre, de 3ª modificación del Rto. Bingo. | | | **95/2005 Dekretua, apirilaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Apustuen Araudia onartzen duena**<br>Decreto 95/2005, de 19 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de Apuestas dela Comunidad Autónoma de Euskadi |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **25/2012 Dekretua, otsailaren 8koa, Bingo-jokoaren Araudia aldatzen duena**<br>Decreto 25/2012 de 8 de febrero de modificación del Rgto. del Juego del Bingo | | | |
| | **14/2015 Dekretua, otsailaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren araudia bosgarrenez aldatzen duena. Jarduera hasteko orduaren aldaketa**<br>DECRETO 14/2015, de 10 de febrero, de quinta modificación del reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Modificación hora inicio actividad. | | | |

| Makinak<br>Máquinas | Bingoak<br>Bingos | Kasinoak<br>Casinos | Aretoak<br>Salones | Beste joko batzuk<br>Otros juegos |
|---|---|---|---|---|
| | | **AGINDUAK / ORDENES** | | |
| **Agindua, 1997ko abenduaren 17koa, Herrizaingoko sailburuarena, jolas-makinen eta makina osagarriak baimentzeko jardunbidearen arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko jolas-makinen, makina osagarrien eta jokorako bestelako instalazio eta sistemen Araudia garatzen duena**<br>Orden de 17 de diciembre de 1997, del Consejero del Interior, por la que se desarrolla el Reglamento de máquinas de juego, máquinas auxiliares y otros sistemas e instalaciones de juego dela Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de procedimientos de autorización relativos a máquinas de juego y máquinas auxiliares | | | **Agindua, 2015eko ekainaren 16koa, Segurtasuneko sailburuarena, urriaren 4ko 380/1994 Dekretua garatzen duena**<br>Orden de 16 junio de 2015, de la Consejera de Seguridad, por la que se desarrolla el Decreto 380/1994, de 4 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos. | **Agindua, 1991ko irailaren 2koa, Herrizaingo sailburuarena, ausazko konbinazioak deritzon joko-modalitatea arautzen duena**<br>Orden de 2 de septiembre de 1991, del Consejero de Interior por la que se regula la modalidad de juego denominada combinaciones aleatorias |
| **Agindua, 2000ko abenduaren 21ekoa, Herrizaingoko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko joko-makinen, makina laguntzaileen eta jokorako beste sistema eta instalazio batzuen araudia onartzen duen abenduaren 24ko 308/1996 Dekretua zati batean garatzen duena**<br>Orden de 21 de diciembre de 2000, del Consejero de Interior, por la que se desarrolla parcialmente el Decreto 308/1996, de 24 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Máquinas de Juego, máquinas auxiliares y otros sistemas e instalaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco | **2010eko otsailaren 8ko Agindua. Kenketa-portzentajeak zehazten ditu.**<br>Orden de 8 de febrero de 2010. Determina los porcentajes de detracción. | | | **Agindua, 2011ko uztailaren 7koa, apustuak euskarri telematiko bidez ustiatzeko joko-sistema eta elementuak homologatzeari buruzkoa.**<br>Orden de 7 de julio de 2011, sobre homologación de sistemas y elementos de juego para explotación de apuestas por sistemas telemáticos |
| **2009ko abenduaren 4ko Agindua. Makinen Erregelamendua garatzen du**<br>Orden de 4 de diciembre de 2009. Desarrolla el Reglamento de maquinas | **2011ko otsailaren 28ko Agindua. Kenketa-portzentajeak zehazten ditu.**<br>Orden de 28 de febrero de 2011. Establece los porcentajes de detracción. | | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **2012ko otsailaren 10eko Agindua, Makinen Erregelamendua garatzen duena.**<br>Orden de 10 de febrero de 2012 de desarrollo del Reglamento de máquinas. | **2012ko ekainaren 28ko Agindua, Bingo Elektronikoaren Erregelamendua onartzen duena.**<br>Orden de 28 de junio de 2012, por la que se aprueba el Reglamento del Juego del Bingo Electrónico | | | **Agindua, 2013ko uztailaren 17koa, Segurtasuneko sailburuarena; honen bidez, lehiaketa publiko¬rako deialdia egin da Euskal Autonomia Erkidegoan apustuak ustiatzeko**<br>Orden de 17 de julio de 2013, de la Consejera de Seguridad, por la que se convoca concurso público para la adjudicación de una autorización para la explotación de apuestas en la CAPV |
| **2012ko urriaren 30eko Agindua. Makinak elkarrekin konektatzeko sistemen baldintza teknikoak**<br>Orden de 30 de octubre de 2012. Condiciones técnicas de sistemas de interconexión de máquinas | **Agindua, 2012ko azaroaren 28koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuaren bidez onartutako Bingo-jokoaren Araudia garatzen duena**<br>Orden de 28 de noviembre de 2012, de la Consejera de Interior, Justicia y Administración Pública, por la que se desarrolla el Reglamento del juego del bingo, aprobado por el Decreto 31/2004, de 10 de febrero | | | **Agindua, 2014ko urriaren 16koa, Segurtasuneko sailburuarena; honen bidez, "B" motako makinen edo sari programatua duten jolas-makinen eta "C" motako makinen edo ausazkoak direnen ikuskapen teknikoa arautzen da.**<br>Orden de 16 de octubre de 2014, por la que se regula la inspección técnica de máquinas de tipo "B" o recreativas con premio programado y de tipo "C" o de azar. |
| ***Agindua, 2014ko abenduaren 3koa, Segurtasuneko sailburuarena, 2009ko abenduaren 4ko Agindua bigarrenez aldatzen duena, zeinaren bidez joko-makina eta -sistemen Erregelamendua onartzen duen azaroaren 17ko 600/2009 Dekretuan aurreikusitako joko-makinen erregulazioa garatzen baita, eta; bestetik, joko-makinen arteko konexio-sistemen baldintza teknikoak eta homologazio- eta ustiaketa-erregimena zehazten dituen 2012ko urriaren 30eko Agindua aldatzen duena.***<br>*Orden de 3 de diciembre de 2014, de la Consejera de Seguridad, de segunda modificación de la Orden de 4 de diciembre de 2009, por la que se desarrolla la regulación de las máquinas de juego previstas en el Decreto 600/2009, de 17 de noviembre, y de modificación de la Orden de 30 de octubre de 2012, por la que se determinan las condiciones técnicas y el régimen de homologación y explotación de los sistemas de interconexión de máquinas de juego.* | **Agindua, 2014ko azaroaren 5ekoa, Segurtasuneko sailburuarena, e-Plus bingoaren erregelamendua onesten duena.**<br>Orden de 5 de noviembre de 2014, de la Consejera de Seguridad, por la que se aprueba el Reglamento del bingo e-Plus. | | | |

| Makinak<br>Máquinas | Bingoak<br>Bingos | Kasinoak<br>Casinos | Aretoak<br>Salones | Beste joko batzuk<br>Otros juegos |
|---|---|---|---|---|
| **EBAZPENAK / RESOLUCIONES** | | | | |
| **Jokorako materiala homologatu aurreko probak egiteko baimendutako erakundeak**<br>Entidades autorizadas para realizar ensayos previos para la homologación de material de juego | | | | |



# 2015eko Memoria Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Arloa

## Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza

# MEMORIA 2015 Área de Espectáculos y Actividades Recreativas

## Dirección de Juego y Espectáculos

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
*Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
*Dirección de Juego y Espectáculos*

# Ikuskizunen eta Jolas Jardueren arloa - Aurkibide orokorra
## Área de Espectáculos y Actividades Recreativas - Índice General


| | | | |
|---|---|---|---|
| **E01** | **31-12-2015eko datu estatistikoak.**<br>Datos estadísticos al 31-12-2015. | | 50 |
| | **E1.1** | **Ikuskizunen eta jolas-jardueren lokalak, Eusko Jaurlaritzak kontrolatu behar dituenak (edukiera >700 pertsona, zezen-plazak eta joko-lokalak)**<br>Locales de espectáculos y actividades recreativas cuyo control corresponde al Gobierno Vasco (aforo >700 personas, plazas de toros y locales de juego) | 50 |
| | **E1.2** | **Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak baimendutako ikuskizunak eta jarduerak**<br>Espectáculos y actividades autorizados por la Dirección de Juego y Espectáculos | 53 |
| | **E1.3** | **Lurralde historikoen araberako urteko jarduera**<br>Actividad anual por TT.HH | 54 |
| | **E1.4** | **Ikuskizun-arloan izapidetutako zehapen-espedienteak eta errekurtsoak**<br>Expedientes sancionadores y recursos tramitados en materia de espectáculos | 57 |
| | **E1.5** | **Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren ikuskaritza-lana**<br>Actividad inspectora de la Dirección de Juego y Espectáculos | 63 |
| | **E1.6** | **Zezen-arloko jarduera - 2014-2015 aldiko zezen-ikuskizun nagusien konparazio-taula**<br>Actividad Taurina – Compartiva E. Taurinos Generales 2014-2015 | 67 |
| **E02** | **Ikuskizun-arloko administrazio-tasen ondoriozko diru-sarrerak**<br>Ingresos por Tasas Administrativas en Espectáculos | | 68 |
| **E03** | **Ikuskizunen arloan 2015eko agenda**<br>Agenda 2015 del área de Espectáculos | | 72 |
| **E04** | **Arau-egitura**<br>Estructura normativa | | 75 |

# E01

## 31-12-2015eko datu estatistikoak
Datos estadísticos al 31-12-2015

### E1.1 Ikuskizunen eta jolas-jardueren lokalak, Eusko Jaurlaritzak kontrolatu behar dituenak (edukiera >700 pertsona, zezen-plazak eta joko-lokalak)
Locales de espectáculos y actividades recreativas cuyo control corresponde al gobierno vasco (aforo >700 personas, plazas de toros y locales de juego)

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira Total |
|---|---|---|---|---|
| **Dantzalekuak, diskotekak** Salas de fiestas, discotecas | 2 | 7 | 3 | **12** |
| **Zinemak, antzokiak** / Cines, teatros | 3 | 14 | 9 | **26** |
| **Museoak eta Erakusketa-aretoak** Museos y Salas de exposiciones | 4 | 8 | 5 | **17** |
| **Azoka-esparru eta/edo kongresuena** Recinto ferial y/o de congresos | 1 | 4 | | **5** |
| **Futbol-zelaiak** / Campos de fútbol | 8 | 33 | 9 | **50** |
| **Pilotalekuak** / Frontones | 1 | 10 | 12 | **23** |
| **Kirol-barrutiak** / Complejos deportivos | 3 | | 9 | **12** |
| **Kiroldegiak** / Polideportivos | 12 | 39 | 24 | **75** |
| **Beste kirol-instalazio batzuk** Otras instalaciones deportivas | | 1 | 2 | **3** |
| **Zezen-plaza iraunkorrak** Plazas de toros permanentes | 1 | 4 | 4 | **9** |
| **Bestelako lokalak** / Locales varios | 1 | 1 | 2 | **4** |
| **GUZTIRA** / TOTAL **> 700** | **36** | **121** | **75** | **236** |
| | | | | |
| **Joko-lokalak** / Locales de juego | 28 | 117 | 67 | **212** |
| | | | | |
| **LOKALAK GUZTIRA** / TOTAL LOCALES | **64** | **239** | **146** | **449** |




Araba
Bestelako lokalak / Locales varios 3%
Zezen-plaza iraunkorrak /Plazas de toros permanentes 3%
Dantzalekuak, diskotekak /Salas de fiestas, discotecas 6%
Zinemak, antzokiak / Cines, teatros 8%
Museoak eta Erakusketa-aretoak Museos y Salas de exposiciones 11%
Kiroldegiak / Polideportivos 33%
Futbol-zelaiak / Campos de fútbol 22%
Azoka-esparru eta/edo kongresuena /Recinto ferial y/o de congresos 3%
Kirol-barrutiak / Complejos deportivos 8%
Pilotalekuak / Frontones 3%


Bizkaia
Zezen-plaza iraunkorrak /Plazas de toros permanentes 3%
Beste kirol-instalazio batzuk /Otras instalaciones deportivas 1%
Bestelako lokalak / Locales varios 1%
Dantzalekuak, diskotekak /Salas de fiestas, discotecas 6%
Zinemak, antzokiak / Cines, teatros 12%
Museoak eta Erakusketa-aretoak Museos y Salas de exposiciones 7%
Kiroldegiak / Polideportivos 32%
Futbol-zelaiak / Campos de fútbol 27%
Pilotalekuak / Frontones 8%
Azoka-esparru eta/edo kongresuena /Recinto ferial y/o de congresos 3%


Gipuzkoa
Zezen-plaza iraunkorrak /Plazas de toros permanentes 5%
Bestelako lokalak / Locales varios 3%
Dantzalekuak, diskotekak /Salas de fiestas, discotecas 4%
Zinemak, antzokiak / Cines, teatros 12%
Museoak eta Erakusketa-aretoak Museos y Salas de exposiciones 6%
Futbol-zelaiak / Campos de fútbol 11%
Pilotalekuak / Frontones 15%
Kirol-barrutiak / Complejos deportivos 11%
Kiroldegiak / Polideportivos 30%
Beste kirol-instalazio batzuk /Otras instalaciones deportivas 3%

## E1.2 Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak baimendutako ikuskizunak eta jarduerak
Espectáculos y actividades autorizados por la D.J.E.

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | 2014 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Zezen-ikuskizun nagusiak** / Taurinos generales | 5 | 13 | 12 | 32 | **30** |
| **Usadiozko zezen-ikuskizunak** Taurinos tradicionales | 44 | 20 | 94 | 162 | **158** |
| **Bestelako zezen-ikuskizunak (Errekortadoreak)** Otros taurinos (Recortadores) | 5 | 2 | 2 | 8 | **9** |
| **Plaza berriro irekitzea** / Reapertura plaza | 1 | 3 | 3 | 6 | **7** |
| **Birsalmenta** / Reventa | | 1 | | 1 | **1** |
| **Piroteknia-artifizioak** / Artificios pirotécnicos | 12 | 41 | 34 | 88 | **87** |
| **Kontzertuak, jaialdiak** / Conciertos, Festivales | 9 | 20 | 27 | 61 | **56** |
| **Bestelako jolas-jarduerak** Actividades recreativas varias | 54 | 222 | 95 | 82 | **371** |
| **Ordutegi-luzapenak** / Ampliaciones de horario | 5 | 6 | 17 | 19 | **28** |
| **GUZTIRA** / TOTAL | **135** | **328** | **284** | **460** | **747** |



# E1.3 Lurralde Historikoen araberako urteko jarduera
Actividad anual por TTHH

## Araba

Jendarteari irekitako lokalei dagokienez, 2015ean Salburuako gizarte-etxea inauguratu da. Joko-aretoetan, berriz, ez da aldaketarik izan. Bestalde, zinema-aretoak ixteko joerak lurraldean behera egin duela ematen du.

Respecto al número total de locales abiertos al público, durante el 2015 se ha inaugurado el Centro Cívico de Salburua, mientras que el número de locales de juego no ha sufrido variación.. Por otro lado, parece haberse frenado la tendencia al cierre de las salas de cine existentes en el territorio.

Zezenketa-ikuskizunei dagokienez, betiko ikuskizunak nahiz errekortarienak maila berean eutsi diote aurreko ekitaldiekin alderatuta. Aldiz, ikuskizun orokorrei dagokienez, berretsi egiten da aurreko urteetan jada antzemandako beherakada jarraitua.

En cuanto al número de espectáculos taurinos, cabe distinguir que los espectáculos tradicionales y los de recortadores se han mantenido en un número similar al de ejercicios anteriores, mientras que se confirma la bajada sostenida de los espectáculos generales ya detectada en los últimos años.

Ikuskizun piroteknikoek berriro ere gora egiten dutela ematen du, aurreko urteetan beherakada nabarmena izan ostean. Nolanahi ere, hiru udalerrik bakarrik jarraitzen dute halakoak antolatzen.

El número de espectáculos pirotécnicos parece seguir recuperándose, después de sufrir un considerable descenso en años precedentes, aunque siguen siendo únicamente 3 municipios los que los celebran.

Baimendutako kontzertuek eta festibalek behera egin dute. Hala eta guztiz ere, litekeena da Mendizorrotzako kiroldegian eginiko berritze-lanei esker (2015eko erdi aldera bukatuak) leku horretan egingo diren ikuskizunak gora egitea, lokal horren ezaugarriak nabarmen hobetu baitira.

Los conciertos y festivales autorizados han disminuido; no obstante, es previsible que a consecuencia de la reforma del Polideportivo Mendizorrotza, culminada a mediados del 2015, aumentará el número de eventos celebrados en dicho local, debido a que sus condiciones han mejorado notablemente.

“Jolas-jarduera anitzak” atalean, baimenek ere gora egin dute gabonetako jarduerak direla-eta (Gabonetako Haurrentzako Parkeak, Kotilloiak) nahiz Buesa Arena Pabilioian eginiko ikuskizunei esker (Cirque du soleil, pailazoak, etab.)

El apartado de “actividades recreativas varias”, sigue aumentando en número de autorizaciones, debido al repunte de las actividades navideñas (Parques Infantiles de Navidad, Cotillones) y a la variedad de espectáculos acogidos en el Pabellón Buesa Arena (Circo del Sol, Payasos, etc).

## Gipuzkoa

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren kontrolpean dagoen kultur gune berri bat ireki da Donostian, Tabakalera izena duena hain zuzen.

Se ha abierto un nuevo centro cultural en Donostia cuya inspección y control corresponde a la Dirección de Juego y Espectáuclos, Tabakalera.

Lokal honetan urte zahar kotiloia baimendu genuen, 2800 edukiera izan zuen jolas jarduera honek.

En dicho local se autorizó un cotillón de fin de año con un aforo de 2800 personas.

Joko lokalei dagokionez, hiru joko areto ireki dira: Hernani, Tolosa eta Arrasaten. Aipatzekoa da herri hauetan ez zeudela horrelako lokalarik, ezta bere inguruetan ere.

Por lo que se refiere a locales de juego, se han abierto tres salones de juego, en Hernani Tolosa y Arrasate. Hay que reseñar que ni en esas localidades ni en sus alrededores existían locales de este tipo.

Zezenketei dagokienez, hiru zezen plazen irekiera egin dira urte honetan, Donostia, Eibar eta Azpeitian, non zezenketak egin diren. Beraz, Illumben, Donostiako zezen plazan, zezenketak egon dira azpaldiko partez. Tolosako zezen plazan, aldiz, zezen tradizionalak bakarrik egon dira, eta baita beste ikuskizun batzuk ere baimendu egin dira, zezen-jarduerarekin zer ikusirik ez dutenak.

Aurten ere, aspalditik egin ohi diren zezenketak izan dira Zestoan eta Deban, behin behineko instalakuntzetan.

Zezen tradizionalak Gipuzkoan oso errotuak daude, eta urtero errepikatzen dira ikuskizunak hainbat herritan, hala nola: Bergara, Arrasate, Hondarribia, Oñati, Soraluze, Aretxabaleta, Mutriku, Pasaia, Zestoa… Badago herri bat urtean zehar holako ikuskizunak maíz egiten dituena, Azpeitia hain zuzen.

Ikuskizun piroteknikoei dagokienez, 2013ko abuztuan argitaratutako dekretua finkatua dagoenez, mantendu egin dira baimendutako ikuskizunen kopurua.Aipagarria da, indarrean dagoen legediari egokitzako, askotan artifizioen kalibrea jeitsi egin dela, eskatutako segurtasun distantziak handitu egin baitira.

Bestalde, gero eta gehiago egiten dira ikuskizun piromusikalak, hauek kalibre txikiko artifizioak erabiltzen dituzte.

Beste ikuskizun publiko eta jolas jarduera batzuk baimendu egin dira, 122 hain zuzen. Horietako batzuk urtero antolatzen dira kiroldegietan gehienetan. Hala ere, aipatzekoa da aurten, azken urte hauetan bezala, Irungo FICOBA erakustazokan jarduera asko baimendu egin direla, 11 hain zuzen.

Aipatzekoa da ere, edukiera nahiko handia denez, Donostiako Belodromoan 2 kontzertu baimendu direla aurten.

Bukatzeko, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak ukatu dio baimena, Aste Nagusian festa bat egiteko Donostian, pabeloi industrial batean, ez baitzen betetzen eskatutako baldintzak.

En cuanto a taurinos generales, este año se han realizado tres aperturas de plaza: Donostia, Eibar y Azpeitia para la realización de taurinos generales. Tras largo tiempo se han vuelto a celebrar corridas de toros en Illumbe. Sin embargo, en la plaza de toros de Tolosa se han celebrado solo taurinos tradicionales y otras actividades autorizadas que no tienen que ver con la actividad taurina.

Este año, como es habitual se han celebrado taurinos generales en Zestona y Deba, en instalaciones eventuales.

Los taurinos tradicionales están muy arraigados en Gipuzkoa, y se repiten en algunas localidades anualmente, pj Bergara, Arrasate, Hondarribia, Oñati, Soraluze, Aretxabaleta, Mutriku,Pasajes, Zestoa… En Azpeitia es la localidad en la que se realizan taurinos tradicionales varias veces a lo largo del año.

En cuanto a los espectáculos pirotécnicos una vez asentado el decreto publicado el agosto de 2013 el número de espectáculos autorizados se ha mantenido. Hay que destacar que se observa una disminución del calibre de los artificios para adaptarse a la normativa vigente, que exige una mayor distancia de seguridad.

Por otra parte, se realizan cada vez más espectáculos piromusicales que utilizan artificios de pequeño calibre.

Se han autorizado también otros 122 espectáculos y actividades recreativas. Algunos de ellos se organizan anualmente, generalmente, en polideportivos. Reseñar que en la feria de muestras FICOBA , de Irún, al igual que otros años, se han autorizado muchas actividades, 11 en concreto.

Destacar también dos conciertos en el velódromo de Anoeta, ya que son de aforo importante.

Para terminar mencionar que se denegó la autorización para la celebración de una fiesta en un pabellón industrial de Donostia durante la Semana Grande, al no al no cumplir los requisitos exigidos..

## Bizkaia

Bizkaiko lurralde arduradunak 2015ean gutxi gorabehera aurreko urtean adina jendaurreko ikuskizun (17) eta jolas jarduera (15) baimendu ditu esparru itxietan. Baimen horiek kasu askotan saio edo ekitaldi bat baino gehiago hartzen dituzte; izan ere, guztira 20 saio izan dira ikuskizunetan eta 222 ekitaldi jolas jardueretan. Jolas jarduera ugarienak, besteak beste, Bilboko izotz pìstak, Bilboko, Barakaldoko eta Portugaleteko dantzaldiek eta hainbat udalerritako Gabonetako umeen parkeek izan dituzte.

Los espectáculos públicos (17) y las actividades recreativas (15) en recinto cerrado autorizados por el Responsable territorial de Bizkaia en 2015 se mantienen, más o menos en la línea del año anterior. Estas autorizaciones incluyen en algunos casos más de una sesión, sumando un total de 20 sesiones de espectáculos y 222 sesiones de las actividades recreativas autorizadas. Estas últimas incluyen, entre otras, la pista de hielo de Bilbao, los Bailables de Bilbao, Barakaldo y Portugalete y los parques infantiles de Navidad de varios municipios.

Bizkaian artifizio piroteknikoekin egindako ikuskizun kopuruak ere berdintsu jarraitzen du (41, eta aurreko urtean 42), baina lehergai karga garbia gutxitu da kasu batzuetan: 10 ikuskizun piroteknikо 50 kilo lehergai karga garbi baino gutxiagokoak, eta aurreko urtean 7 bakarrik, eta 31 ikuskizun 50 kilo edo gehiagokoak, eta aurreko urtean 35). Lehergai karga handiena erabili zuen ikuskizuna Bilbon izan zen Aste Nagusian, 1.000 kg pasatxoko ikuskizun bat baino gehiagorekin. Hala ere, gehienak 200-300 kg-koak izaten dira, eta batzuetan 600 kg-ra heltzea ere normala izaten da.

Zezen ikuskizun tradizionalak (20, eta aurreko urtean 25) eta errekotarien zezen ikuskizunak (2, eta aurreko urtean 3) gainbehera txiki bat izaten ari dira Bizkaian. Zezen ikuskizun tradizionaletako batzuk kalean egiten dira zezen plazan egin beharrean, hain zuzen Durangon, Otxandio eta Larrabetzun kalerik kale egiten dira ikuskizun horiek.

El número de espectáculos con artificios pirotécnicos en Bizkaia sigue también estable (41, sobre 42 el año anterior), si bien ha disminuido ligeramente la carga neta de explosivo en algunos casos: 10 espectáculos pirotécnicos de menos de 50 kilos de carga neta explosiva, sobre 7 del año anterior, y 31 de 50 o más kilos, sobre 35 el año anterior). El espectáculo de mayor carga explosiva se registró en Bilbao con varios espectáculos de más de 1.000 kg. Sin embargo, la tónica general ronda los 200-300 kg, alcanzando en algunos casos los 600 kg.

Los espectáculos taurinos tradicionales (20, sobre 25 el año anterior) y espectáculos taurinos de recortadores (2, sobre 3 el año anterior) muestran un ligero declive en Bizkaia de este tipo de espectáculos. Los municipios en los que se desarrollan los espectáculos taurinos tradicionales en recorrido callejero, en lugar de plaza de toros, son Durango, Otxandio y Larrabetzu.

## E1.4 Ikuskizun arloan izapidetutako zehapen espedienteak
### Expedientes sancionadores tramitados en materia de espectáculos

Ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren arloan guztira 130 zehapen-espediente izapidetu dira.

En el área de espectáculos públicos y actividades recreativas se han tramitado un total de 130 expedientes sancionadores.

Arlo honetan izapidetutako espedienteen kopurua %12,07 hazi da ekitaldi honetan, 14 espediente gehiago izapidetu baitira, batez ere Jendaurreko ikuskizun eta Jolas jardueren 4/1995 legearen aurkako arau-hausteen ondorioz, bereziki sarrerak birsaltzeagatik eta Udalak ostalaritzako lokala ixteko ezarritako zehapenak ez betetzeagatik. Uztailaren 11ko 19/2007 Legeak, kirol arloan indarkeria, arrazismoa, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoak, tipifikatutako arau-hausteengatik izapidetu diren espediente kopuruak, ordea, berdin jarraitzen du.

El número de expedientes tramitados en esta materia ha experimentado un ascenso (12,07%) con respecto a los tramitados el año anterior, tramitándose 14 expedientes más. Dicho aumento se ha producido, principalmente por un mayor número de expedientes tramitados por infracciones a la Ley 4/1995, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, fundamentalmente por reventa de entradas y por incumplimiento de sanciones de cierre de locales de hostelería impuestas por los Ayuntamientos, manteniéndose igual el número de expedientes tramitados por infracciones tipificadas en la Ley 19/2007, de 11 de julio, contra la Violencia, el Racismo, la Xenofobia y la Intolerancia en el Deporte.

Espedienteak hurrengo tauletan daude banakatuta egintza-mota, arau-haustearen larritasuna eta egintzak zein lurralde historikotan gauzatu ziren kontuan izanda.

Se desglosan en las tablas siguientes los expedientes atendiendo a la naturaleza de los hechos, la gravedad de la infracción y al Territorio Histórico donde se cometieron.

| | | |
|---|---|---|
| **2015eko Ikuskizun arloko zehapen espediente guztiak**<br>Total de expedientes sancionadores en materia de espectáculos en 2015 | | **130** |
| **2015ean hasitako espedienteak** / Expedientes iniciados 2015 | | 93 |
| **2015ean ebatzitakoak** / Resueltos en 2015 | 56 | |
| **2015ean ebatzi gabe daudenak** / Pendientes de resolución en 2015 | 37 | |
| **Aurreko urtetan hasitako espedienteak**<br>Expedientes iniciados en año anteriores | | 37 |

| | |
|---|---|
| **Arau-hauste diren ekintzen ondorioz izandako espediente guztiak**<br>Total de expedientes por hechos constitutivos de infracción | **130** |
| **Kiroleko indarkeria** / Violencia en el deporte | **77** |
| **Antolatzailearen arau-haustea** / infracción del organizador | 4 |
| **Kirol-barrutian ikuslearen arau-hustea**<br>Infracción del espectador en recinto deportivo | 48 |
| **Inguruetan ikuslearen arau-hustea**<br>Infracción del espectador en aledaños | 14 |
| **Largetsitakoak** /sobreseídos | 11 |
| **Ostalaritzako lokala ixteko zehapena ez betetzea**<br>Incumplimiento de sanción de cierre de local de hostelería | **8** |
| **Largetsitakoak** /sobreseídos | **1** |
| **Sarreren birsalmenta** / Reventa de entradas | **21** |
| **Zezenak** / toros | **6** |

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 88 79 – Fax 945 01 87 48

| | |
|---|---|
| **Kirola** / deporte | **15** |
| **Futbola** / fútbol | **14** |
| **Saskibaloia** / baloncesto | **1** |
| **Segurtasun neurriak** / medidas de seguridad | **9** |
| **Ebakuazio-bideetan irregulartasuna** Irregularidades en las vías de evacuación | 5 |
| **Instalazioaren ebazpena ez betetzea** Incuplimiento de la resolución de instalación | 1 |
| **Dokumentazio falta** / falta de la documentación | 1 |
| **Largetsitakoak** /sobreseídos | 2 |
| **Zezen-ikuskizunak** / Taurinos | **9** |
| **Nagusiak** / generales | 9 |
| **Usadiozkoak** / tradicionales | 0 |
| **Ordutegi ez betetzea** / incumplimiento de horario | **1** |
| **Erreklamazio orriak** / hojas de reclamaciones | **0** |
| **Su artifizialak** / fuegos artificiales | **1** |
| **Sarrera ukatzea** / derecho de admisión | **1** |
| **Baimena gabeko ikuskizuna** / espectáculo sin autorización | **2** |
| **Edukiera** / Aforo | **0** |
| **Alkohol salmenta** / venta de alcohol | **1** |

| **Arau-haustearen araberako espediente guztiak** Total de expedientes por tipo de infracción | **2014** | **2015** |
|---|---|---|
| | **116** | **130** |
| **Oso larriak** / muy graves | 1 | 7 |
| **Larriak** / graves | 17 | 12 |
| **Arinak** / leves | 57 | 67 |
| **Largetsitakoak** /sobreseídos | 15 | 16 |
| **2015ean ebatzi gabekoak** / pendientes de resolución en 2015 | 26 | 28 |



| **Arau-haustea egin zen lurraldearen araberako espediente guztiak**<br>Total expedientes por territorio donde se cometió la infracción | **2014** | **2015** |
|---|---|---|
| | **116** | **130** |
| Araba | 19 | 16 |
| Bizkaia | 50 | 74 |
| Gipuzkoa | 47 | 40 |



## Errekerimenduak
Requerimientos

Zehapen-espedienteak ez irekitzeko asmoz, aldez aurretik zuzentzeko ohartarazpenak eta errekerimenduak egiten dira, askotan balio baitute eskatutakoa zuzentzeko edo betetzeko eta horrela zehapen-espedienterik ireki behar ez izateko.

2015. urtean ikuskizunen arloan 2 ohartarazpen egin ziren, ebakuazio-bideetan gurpil-aulkiak egoteagatik eta ikuskizun batean ikusle batzuk oso egokia ez zen leku batean birkokatzeagatik.

Con el fin de evitar la apertura de expedientes sancionadores se efectúan apercibimientos y requerimientos previos de subsanación, que en muchas ocasiones sirven para subsanar o cumplimentar lo solicitado, evitando así la apertura de expediente sancionador.

En el año 2015 se han efectuado 2 apercibimientos en materia de espectáculos, con motivo de la ocupación por sillas de ruedas de vías de evacuación y por una reubicación desafortunada de personas en un espectáculo.

| | 2014 | 2015 |
|---|---|---|
| **Errekerimenduak** / requerimientos | 1 | 0 |
| **Ohartarazpenak** / apercibimientos (ikuskizunetan) | 0 | 2 |

## 2015ean ebatzitako gora jotzeko errekurtsoa / recursos de alzada

| | |
|---|---|
| **2015ean ebatzitako gora jotzeko errekurtsoak**<br>Recursos de alzada resueltos en 2015 | 20 |
| **Ebazpen zehatzaileen kontrakoak** / contra resoluciones sancionadoras | 16 |
| **Zehatzaileak ez diren ebazpenen kontrakoak**/ contra resoluciones no sancionadoras | 4 |
| **Ordutegia luzatzea ukatzea** /denegación ampliación de horarios | 1 |
| **Ikuskizun arloko erreklamazioa ez onartzea**/desestimación de reclamación de espectáculos | 1 |
| **Zezen-ikuskizunetan adarrei ausazko analisiak egiteko ebazpena**<br>Resolución anáisis aleatorio de astas en espectáculos taurinos | 1 |
| **Jolas jarduera ebazpena ukatzea**<br>Denegación de autorización de actividad recreativa | 1 |

| | |
|---|---|
| **Epez kanpo aurkezteagatik ez onartuak** /inadmitidos por fuera de plazo | 5 |
| **Baiesleak** /estimatorios | 1 |
| **Partzialki baiesleak** /estimación parcial | 0 |
| **Ezesleak** /desestimatorios | 13 |
| **Atzera egindakoak** /desistido | 1 |
| **Administrazioarekiko Auzibidera eramandakoak**<br>Impugnados en vía contencioso–administrativa | 3 |
| **Ebazpen zehatzaileengatik** /por resoluciones sancionadoras | 3 |

| Zehapenei buruzko datu orokorrak<br>Datos generales sanciones | 2014 | 2015 |
|---|---|---|
| **Zezen-ikuskizunak** / Taurinos | 8 | 9 |
| **Ebazpenaren ez-betetzeak**<br>Incumplimientos de Resolución | 4 | 8 |
| **Lokaletako segurtasuna**<br>Seguridad en locales | 10 | 9 |
| **Kiroleko indarkeria**<br>Violencia en el deporte | 77 | 77 |
| **Sarreren birsalmenta**<br>Reventa de localidades | 10 | 21 |
| **Beste batzuk** / otros | 7 | 6 |
| **GUZTIRA** / TOTAL | **116** | **130** |




## 2015ean Ikuskizun arloko erreklamazioak
## Reclamaciones en materia de espectáculos 2015

| Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira / Total |
|---|---|---|---|
| 17 | 244 | 12 | 273 |

Kontuan izan behar da Konstumobide Kontsumoko Euskal Institutua martxan jartzearekin batera nabarmen egin dutela behera Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzan jasotako erreklamazioek, kexek edo salaketek; batik bat, orain, Kontsumobidek berak jasotzen dituelako horiek guztiak, eta, horien edukia aztertu ostean, kontratu ez betetzeekin lotutakoak ebazten ditu, eta gainerakoak geuri igortzen dizkigute.

2015ean 244 erreklamazio aurkeztu ziren Bizkaian, ikuskizunen arloan. Generoa kontuan hartua, jokoaren arloko erreklamazioetan ez bezala,

Debe tenerse en cuenta que con la puesta en marcha del Instituto Vasco de Consumo, Kontsumobide, han disminuido notablemente las reclamaciones, quejas o denuncias que recibe la Dirección de juego y Espectáculos. Ello es debido a que, en principio, todas ellas son recepcionadas por Kontsumobide, quien una vez analizado su contenido, se ocupa de tramitar las relacionadas con incumplimientos contractuales y nos remite el resto.

En 2015 se han tramitado 244 reclamaciones en Bizkaia, en materia de espectáculos. Por géneros, a diferencia de las reclamaciones de juego, que

horiek gehienak gizonezkoenak baitira, nahikoa berdinduta dago: % 55 gizonezko erreklamaziogileak eta % 45 emakumezkoak. Gehien-gehienak, dozena erdi bat izan ezik, gaztelaniaz aurkeztu dira. Erreklamaziorik gehien eragin dituzten ikuskizun eta jolas jarduerak hauek dira: Getxolandia umeen parkea (92), Moon diskotekako urteberri eguneko kotilloia (18), Getinek BECen antolatu eta Ticket Masterrek sarrerak saldu zituzten kontzertuak (14 Joaquín Sabina, 8 Alejandro Sanz), Musika/Música emanaldia (10) eta Terracota Army erakusketa (10), hurrenez hurren, Fundación Bilbao 700 fundazioak Cirque Eolo S.L. sozietateak Euskalduna jauregian antolatu zituztenak, Bilboko La Casilla kiroldegian MMA Masters Seriesek antolatutako boxeoaldia (5) eta Erandioko Sonora diskotekan antolatu zen ikaskurte amaierako gau jaia (4). Hala ere, erreklamazio kopuruak ez du esan nahi antolaketa txarra egon zenik nahitaez. Aitzitik, kontuan hartu behar da, ekitaldi horietako askotan jende andana handia bertaratu zela, espero zena baino gehiago batzuetan, eta horregatik, erreklamazio kopurua bertaratu zen jende kopuruarekin konparatu beharra dago ondorio zuzenak ateratzeko

son mayoritariamente de hombres, están bastante igualados: 55 % hombres y 45 % mujeres.

La inmensa mayoría, salvo media docena, se han formulado en castellano. Los espectáculos y actividades recreativas que más reclamaciones han promovido son el parque infantil Getxolandia (92), el cotillón del 1 de enero de la discoteca Moon (18), los conciertos organizados por Getin con venta de entradas a través de Ticket Master en BEC (14 Joaquín Sabina, 8 Alejandro Sanz), el certamen Musika/Música (10) y la exposición Terracota Army (10) organizados en el Palacio Euskalduna por la Fundación Bilbao 700 y Cirque Eolo S.L. respectivamente, la velada de boxeo organizada en La Casilla por MMA Masters Series (5) y la fiesta fin de curso en la discoteca Sonora de Erandio (4). No obstante, el número de reclamaciones no implica en sí mismo una mala organización, sino que hay que tener en cuenta que hubo una gran afluencia de público, superando incluso las expectativas, en muchos de estos eventos, lo que lleva a relativizar el número de reclamaciones presentadas en relación a la asistencia masiva que se registró en muchos casos.

# E1.5 Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren ikuskaritza lana
Actividad inspectora de la Dirección de Juego y Espectáculos

## Egindako ikuskapenak / Inspecciones realizadas

| Ikuskizun arloko jarduera<br>Actividad en el área espectáculos | 2014 | 2015 |
|---|---|---|
| **Ikuskizun eta jolas-jardueretarako lokalak**<br>Locales de espectáculos y actividades recreativas | 226 | **226** |
| **Ikuskizun eta jolas-jardueretarako lokalei buruzko txostenak**<br>Informes sobre locales de espectáculos y AARR | 43 | **49** |
| **Baimendutako jarduerei buruzkoak**<br>Sobre actividades autorizadas | 615 | **554** |
| **Lokaletako jarduerari buruzko ikuskapenak**<br>Inspecciones de actividad de locales. | 675 | **598** |
| **GUZTIRA** / TOTAL | 1.559 | **1.427** |




Berrehun eta hogeita sei lokali egin zaie ikuskapena, kopurua mantentzen da, 2015ean baja-kopurua (Arteako bolatokia eta CF Astrónomos) eta lokal berrien kopurua berdina izan da eta (Vitoria-Gasteizen, Salburuako GE eta Donostian Tabakalera eraikina).

El número de locales objeto de inspección se mantiene en doscientos veinte seis, coincidiendo durante el 2015 el número de bajas (Bolera de Artea y CF Astrónomos) con el de nuevos locales (C.C. Salburua en Vitoria-Gasteiz y Edificio Tabakalera en Donostia).

2015 urtean zehar, segurtasun arloari dagokionez, lokalen ehun eta berrogeita hamazazpi ikuskapen egin dira eta horiei 2014an egin ziren 99 ikuskapenak gehitzen badizkiegu, berrehun eta berrogeita hamaseiko emaitza ematen dute, hau da, gutxi gorabehera, urtebete eta erdiko epe batean Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren eskumenekoak diren lokal guztien datuak eguneratu dira. Era berean, Illunbeko zezen-ikuskizunak berriro hastearen ondorioz, zezen-plazak berriro ireki direlako egindako ikuskapenen kopurua handitu da.

Durante el año 2015 se han realizado ciento cincuenta y siete inspecciones de local en materia de seguridad que sumadas a las 99 realizadas en el año 2014 arrojan la cifra de doscientas cincuenta y seis, es decir, en el plazo aproximado de año y medio se han actualizado los datos de todos los locales competencia de la Dirección de Juego y Espectáculos. Así mismo, se incrementa el número de inspecciones por reapertura de plazas de toros al reanudarse la feria taurina de Illumbe.

Baimendutako jardueren eta lokalen jardueren gaineko ikuskapenak gutxitu dira, lehen kasuan, baimendutako ikuskizunen kopurua ere gutxitu delako, ikuskizun guztiei egiten baitzaie ikuskapena; eta bigarren kasuan, arrisku txikiagoko lokaletan segurtasunari buruzko ikuskapenak egiten direlako, eta horren ondorioz jardueraren urteko ikuskapena egin gabe utz daiteke.

La disminución de inspecciones sobre actividades autorizadas y actividad de local, se deben en el primero de los casos al menor número de espectáculos autorizados ya que se cubren la totalidad de ellos y en el segundo a la realización de inspecciones de seguridad sobre locales de menor riesgo que permiten obviar la inspección anual de actividad.

Ikuskizunetako lokalen gaineko itxiera-kontrolen kopurua gutxitu da eta aurreko urtearen aldean, egiaztapenen kopurua hirukoiztu egin da, gehien bat, lokaletan segurtasunari buruzko ikuskapenak egitean hautemandako gabeziengatik.

Se reducen el número de controles de cierre sobre locales de espectáculos triplicándose la cifra de constataciones en comparación con el año anterior, motivados principalmente por las deficiencias detectadas en las inspecciones de seguridad en los locales.

## Establezimenduaren jarduera / lizentzia
## Actividad / Licencia de establecimiento

Ikuskizun eta jolas-jardueren arloan, establezimenduaren lizentziaren babesean, lokalei eta instalazioei baimendutako jardueraren zaintza eta kontrola.

Vigilancia y Control de la actividad autorizada a los locales e instalaciones en materia de Espectáculos y Actividades Recreativas amparadas por la licencia de establecimiento.

| **Jardueraren ikuskapenak** /Inspecciones actividad | **2014** | **2015** |
|---|---|---|
| **Azoka eremuak, erabilera anitzekoak, museoak eta erakusketa aretoak**<br>R. Feriales, multiusos, museos y salas exposiciones | 62 | **75** |
| **Zinemak eta antzokiak** / Cines y teatros | 92 | **80** |
| **Kontzertu aretoak, dantzalekuak eta diskotekak**<br>Salas conciertos, fiesta y discotecas | 86 | **87** |
| **Futbol zelaiak** / Campos de fútbol | 154 | **151** |
| **Kirol barrutiak / Kiroldegiak**<br>Complejos deportivos / polideportivos | 207 | **145** |
| **Pilotalekuak** / Frontones | 34 | **22** |
| **Zezen-plazak** / Plazas de toros | 30 | **30** |
| **Baimen beharrik ez duten beste batzuk**<br>Otros sin necesidad de autorización | 10 | **8** |
| **GUZTIRA** / TOTAL | **675** | **598** |



## Administratiboak/Ikuskizun publikoak
Administrativas/espectáculos públicos

| **Ikuskizun publikoen zaintza eta kontrola**<br>Vigilancia y control espectáculos públicos | **2014** | **2015** |
|---|---|---|
| **Baimendutako birsalmentari buruzko txostenak**<br>Informes reventa autorizada | 1 | 1 |
| **Ikuskizunetarako lokalen ordutegiaren kontrola**<br>Control horario locales de espectáculos | 95 | 83 |
| **Egiaztapenak/bestelako eskakizunak**<br>Constataciones/requerimientos varios | 17 | 47 |
| **Zehapen espedienteengatiko berrespenak**<br>Ratificaciones por expediente sancionador | 3 | |
| **GUZTIRA** / TOTAL | 116 | 131 |



# E1.6 Zezen arloko jarduera
Actividad taurina

## 2014 – 2015 aldiko zezen ikuskizunen konparazio taula
Comparativa taurinos generales 2014 – 2015

| | 2014 | 2015 |
|---|---|---|
| **Zezenketak** / Corridas | 14 | **15** |
| **Zezenketa mistoak** / Corridas mixtas | 1 | **1** |
| **Burtzi-zezenketak** / Corridas rejones | 3 | **2** |
| **Pikatzailedun nobilladak** Novilladas con picadores | 2 | **1** |
| **Pikatzailerik gabeko nobilladak** Novilladas sin picadores | 9 | **9** |
| **Jaialdiak** / Festivales | 3 | **2** |
| **GUZTIRA** / TOTAL | **32** | **30** |



# E02

## Ikuskizun arloko tasen ondoriozko diru sarrerak
## Ingresos por tasas en materia de espectáculos

2014. urtean bezala, honetan ere gehitu dira Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak sortutako diru-sarrerei buruzko datuak; hain zuzen, administrazio-tasengatiko bilketari loturikoak. Datuen azterketatik ondorioztatzen da hiru lurralde historikoetan izandako diru-bilketarik handiena zezen-ikuskizunek eragiten dutela, batez ere zezen-ikuskizun nagusiek eta esparru itxietan egindako ikuskizun eta jarduueretarako baimenek, bilketaren ia %70 baita.

Al igual que en 2014, éste también se han incluido los datos referidos a ingresos generados por la Dirección de Juego y Espectáculos referidos a la recaudación por tasas administrativas. Del estudio de los datos se colige que el mayor ingreso en los tres Territorios Históricos lo generan los espectáculos taurinos, específicamente los taurinos generales y las autorizaciones de espectáculos y actividades en recintos cerrados que suponen casi el 70% de la recaudación.

### Tasa-kopurua
### Numero de tasas

| | Araba | | Gipuzkoa | | Bizkaia | | Besteak Otros | | Guztira Total | Guztira Total |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Urtea / Año** | 2014 | **2015** | 2014 | **2015** | 2014 | **2015** | 2014 | **2015** | 2014 | **2015** |
| **Ordutegien luzapena** Ampliación Horarios | 3 | **5** | 7 | **12** | 4 | **6** | | | 14 | **23** |
| **Generikoak Genéricos** | 2 | | 4 | **6** | 2 | **3** | 1 | | 9 | **9** |
| **Piroteknikoak** Pirotécnicos | | | 2 | **2** | | | | | 2 | **2** |
| **Esparru itxiak** Recintos Cerrados | 17 | **10** | 29 | **28** | 15 | **17** | | | 61 | **55** |
| **Zezen-ikuskizun nagusiak** Taurinos Generales | 3 | **2** | 2 | **2** | 4 | **4** | | | 9 | **8** |
| **Bestelako zezen-ikuskizunak** Taurinos Otros | 4 | **3** | 1 | **2** | 1 | **2** | | | 6 | **7** |
| **Usadiozko zezen-ikuskizunak** Taurinos Tradicionales | 1 | **1** | 1 | **1** | 6 | **5** | | | 8 | **7** |
| **Tasen guztizko kop.** Total Nº tasas | 30 | **21** | 46 | **53** | 32 | **37** | 1 | | 109 | **111** |

## Tasen guztizko kop. / Total Nº tasas 2014




## Tasen guztizko kop. / Total Nº tasas 2015






## Tasen zenbatekoa
Importe de las tasas

| | Araba | | Gipuzkoa | | Bizkaia | | Besteak Otros | | Guztira Total | Guztira Total |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Urtea / Año** | 2014 | **2015** | 2014 | **2015** | 2014 | **2015** | 2014 | **2015** | 2014 | **2015** |
| **Ordutegien luzapena** Ampliación Horarios | 314,16 | 662,76 | 1216,68 | 1.987,23 | 384,09 | 628,32 | | | 1914,93 | 3.278,31 |
| **Generikoak** Genéricos | 1.22,23 | | 435,96 | 1.760,49 | 3.136,96 | 418,49 | 278,84 | | 3.973,99 | 2.178,98 |
| **Piroteknikoak** Pirotécnicos | | | 278,84 | 278,84 | | | | | 278,84 | 278,84 |
| **Esparru itxiak** Recintos Cerrados | 888,07 | 523,00 | 1516,7 | 1.464,40 | 784,5 | 889,10 | | | 3.189,27 | 2.876,50 |
| **Zezen-ikuskizun nagusiak** Taurinos Generales | 1.673,04 | 1.115,36 | 1.115,36 | 1.115,36 | 1.115,36 | 3.346,08 | | | 3.903,76 | 5.576,80 |
| **Bestelako zezen-ikuskizunak** Taurinos Otros | 209,20 | 156,90 | 52,3 | 104,60 | 52,3 | 104,60 | | | 313,8 | 366,10 |
| **Usadiozko zezen-ikuskizunak** Taurinos Tradicionales | 52,30 | 52,30 | 52,3 | 52,30 | 313,8 | 261,50 | | | 418,4 | 366,10 |
| **Tasen guztizko kop.** Total Nº tasas | 3.259,00 | 2.510,32 | 4.668,14 | 6.763,22 | 5.787,01 | 5.648,09 | 278,84 | | 13.992,99 | 14.921,63 |



## Tasen zenbatekoa / importe de las tasas 2014






# E03

## Ikuskuzunen arloan 2015eko agenda

## Agenda 2015 del área de espectáculos

Hona hemen Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak 2015. urtean zehar ikuskizun publiko eta jolas-jardueren arloan dagokion jardun-eremuan burututako jardueraren laburpena

He aquí un resumen de la actividad de la Dirección de Juego y Espectáculos en su ámbito de actuación de Espectáculos Públicos y actividades recreativas durante el año 2015

### Jendeaurreko ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea

2015eko abenduaren 23an lege hau onartu zen. Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen diren jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzea, eta ezartzea zein baldintza eta betekizun izan behar dituzten ikuskizun edo jarduerok eskaintzen dituzten leku irekiek eta establezimendu publikoek, berdin izanik haien titular edo antolatzaileak erakunde publikoak edo pertsona fisikoak edo juridiko pribatuak diren, irabazteko asmorik duten ala ez, edo jarduera edo ikuskizunak instalazio finko, eramangarrietan edo desmuntagarrietan eta etengabe edo aldi baterako antolatzen diren.

### Ley de espectáculos y actividades recreativas

El dia 23/12/2015 se aprobó la ley que tiene por objeto la regulación de los espectáculos públicos y de las actividades recreativas que se desarrollen en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como de las condiciones y requisitos que deben reunir los establecimientos públicos y espacios abiertos donde aquellos se celebren o realicen, sean sus titulares u organizadores entidades públicas o personas físicas o jurídicas privadas, tengan o no finalidad lucrativa, se realicen en instalaciones fijas, portátiles o desmontables, así como de modo habitual u ocasional.

### Kirol arloko indarkeriaren aurkako borroka

2015ean hiru euskal talde igo ziren bigarren B mailara: Arenas Klub, Portugalete C. F eta Gernika Futbol Klub. Hiru taldeak 2015eko urrian atxiki zitzaizkion Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak eta klub, kirol-sozietate anonimo eta kirol-federazioek kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurka egiteko 2014an sinatu zuten lankidetza-protokoloari.

### Lucha contra la Violencia en el deporte

En el ejercicio 2015 se produjo el ascenso a Segunda División B de tres equipos vascos: Arenas Club, Portugalete, C.F. y Gernika Fútbol Club. Los tres equipos se adhirieron en octubre de 2015 al Protocolo de colaboración, en materia de lucha contra la violencia, el racismo, la xenofobia y la intolerancia en el deporte suscrito en 2014 entre el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco y los clubes, sociedades anónimas deportivas y federaciones deportivas.

### Zabalkunde-kanpainak eta argitalpenak egitea

Sentsibilizazio-kanpainei dagokienez, arlo honetan, 2015ean 3 kanpaina egin dira komunikabideetan lokalen, ikuskizunen eta jolas-jardueren segurtasun neurriak betetzeko beharrari buruz; zehazki esanda, gai hauen gainean: gehienezko edukierak betetzea, ikuskizun piroteknikoen segurtasuna eta bereziki arazotsuak diren data berezietan (Inatureriak eta Gabonak) egin beharreko jarduerak.

### Realización de campañas divulgativas y publicaciones

En relación con las campañas de sensibilización, en esta cuestión, en 2015 se han realizado hasta 3 campañas en medios de comunicación sobre la necesidad de cumplir con las medidas de seguridad de los locales, espectáculos y actividades recreativas, en concreto sobre el tema del cumplimiento de los aforos máximos, sobre la seguridad en espectáculos pirotécnicos y más concretamente sobre actividades a desarrollar en fechas señaladas especialmente conflictivas como son Carnavales y Navidad.

## Zezensuzko ikastaroa

Segurtasun-neurriei buruzko ikastaroei dagokienez, elkarrekin lan egin dugu Arkauteko Polizia eta Larrieldietako Euskal Akademiarekin, Euskal Autonomia Erkidegoan artifizio piroteknikoak erabiltzen dituzten ikuskizunei buruzko Dekretuak xedatutakoari jarraiki, eta antolatu ditugu Euskadiko Udaletako langilegoari zuzendutako ikastaroak, zezensuzko deritzon jaialdiari buruz.

2015eko urtean bi ikastaro egin dira eta ikastaro hauetan 44 pertsonentzako prestakutzaz aritu dira.

## Cursos de Toro de Fuego

En relación con cursos sobre medidas de seguridad, se ha colaborado con la Academia Vasca de Policía y Emergencias de Arkaute, en aplicación de lo dispuesto en el Decreto de espectáculos con artificios pirotécnicos en la Comunidad Autónoma de Euskadi, para la realización de cursos orientados a personal de los distintos Ayuntamientos de Euskadi, sobre la celebración festiva denominada Toro de Fuego.

En el año 2015 se han realizado 2 cursos dando una formación a un total de 44 personas.

## Araudia egokitzea eta garatzea

2015eko ekitaldian zehar araudi batzuk –EHAAn argitaratuak– onartu dira. Hona hemen:

- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena. (2016ko urtarrilaren 7ko EHAA, 3. Zk.).
- Agindua, 2015eko abuztuaren 3koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira zezen-ikuskizun orokorretan lagin biologikoak hartzeko eta analizatzeko prozedura eta lagin horiek analizatuko dituzten laborategiak homologatzeko prozedura (abuztuaren 3ko EHAA, 145. zk.).

- Ebazpena, Joko eta Ikuskizunen zuzendariarena, zeinen bidez ezartzen baita post-mortem, ausazko analisiak egitea zezenketa-abelburuei 2015eko zezenketa-denboraldian (abuztuaren 4ko EHAA, 146. zk.).

## Adecuación y desarrollo de la normativa

Durante el ejercicio 2015 se han aprobado diversas normas, publicadas en el BOPV:

- Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas. (B.O.P.V. de 7 de enero de 2016, nº 3).
- Orden de 3 de agosto de 2015, de la Consejera de seguridad, por la que se regula el procedimiento para la realización de toma de muestras biológicas en los espectáculos taurinos generales, su análisis y el procedimiento de homologación de los laboratorios encargados de los análisis de dichas muestras (B.O.P.V. de 3 de agosto, nº 145).
- Resolución del Director de Juego y Espectáculos por la que se determina la realización de análisis post-mortem aleatorios a reses de lidia durante la temporada taurina 2015 (B.O.P.V. de 4 de agosto, nº 146).

## Parte hartutako organoen jarduera

- Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Ihardueren Euskal Kontseilua

2015eko ekainaren 19an Kontseiluak bilera egin zuen, eta honakoa izan zen gaien zerrenda: aurreko bileraren akta onartzea, hala badagokio; ikuskizunen arloko 2014ko jarduera-memoria; Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legeko izapidetza nola dagoen; Autobabes-planen ekarpena; beste gai batzuk; eta eskaerak eta galderak.

2015eko abenduaren 9an Kontseiluak bilera egin zuen, eta honakoa izan zen gaien zerrenda: aurreko bileraren akta onartzea, hala

## Actividad de los órganos participados

- Consejo Vasco de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas

En fecha 19 de junio de 2015 se ha celebró reunión del Consejo y se trataron los temas siguientes: aprobación, si procede, del acta de la reunión anterior; memoria de actividad 2014 del área de Espectáculos; estado de la tramitación de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas; aportación de Planes de autoprotección; otros asuntos; y ruegos y preguntas.

En fecha 9 de diciembre de 2015 se celebró reunión del Consejo y se trataron los temas siguientes: aprobación, si procede, del acta de

badagokio; nahitaezko txostena ematea Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Kontseiluko osaera eta funtzionamendua arautzen duen Dekretuaren gainean; beste gai batzuk; eta eskaerak eta galderak.

- Toreo-Gaien Euskal Batzorde Aholku-emailea.

2015. urteari dagokionez, esan behar da Toreo-Gaien Euskal Batzorde Aholku-emaileak 2015eko otsailaren 25ean eta 2015eko ekainaren 19an ohiko bilerak egin zituela. Lehenengo bilera horretan, 2014ko zezenketa-denboraldiaren azterketa egin zen eta zezen-ikuskizun orokorretan laginak hartzeko eta analizatzeko prozeduraz aritu zen. Bigarrenean, Gasteizko Zezen-plazako presidentearen izen-proposamena eta Donostiako Zezen-plazako presidentearen izen-proposamena aurkeztu ziren. Bi kargu hauek onartu ziren. Lagin biologikoak hartzeko eta analizatzeko prozedura arautzen duen agindua aurkeztu zen. Bukatzeko, 2015ean zehar burutu beharreko denboraldiaren inguruko aurreikuspenez jardun zuten.

Joko eta ikuskizun zuzendariak hizlari moduan parte hartu du kongresu honetan:
2015/04/24an, Bilbon, OSALAN “La prevención de riesgos laborales en actividades culturales y recreativas”

la reunión anterior; Informe preceptivo sobre el Decreto por el que se regula la composición y funcionamiento del Consejo Vasco Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas; otros asuntos; y ruegos y preguntas.

- Comisión Vasca Asesora para Asuntos Taurinos.

La Comisión Vasca Asesora para Asuntos Taurinos durante el año 2015 ha realizado dos reuniones ordinarias el 25 de febrero de 2015 y el 19 de junio de 2015. En la primera, se hizo un análisis de la temporada taurina de 2014 y se trató el procedimiento de toma de muestras y análisis de astas, sangre y orina de reses de lidia. En la segunda, se presentaron las propuestas para Presidente de la Plaza de toros de Vitoria-Gasteiz y la Propuesta para Presidente de la Plaza de toros de Donostia-San Sebastián. Se aprobaron ambos cargos. Se presentó la Orden reguladora de toma de muestras y análisis de astas, sangre y orina de reses de lidia. Finalmente se comentaron las previsiones respecto a la temporada a celebrar durante 2015.

El director de Juego y Espectáculos ha participado como ponente en los siguientes congresos:
El día 24/04/2015, en Bilbao, OSALAN “La prevención de riesgos laborales en actividades culturales y recreativas”

**Jendeaurreko ikuskizun eta Jolas jardueren Legea (10/2015)**
Ley de Espectáculos y Actividades Recreativas (10/2015)

**7/2012 Legea, apirilaren 23koa. Horren bidez lege batzuk aldatu dira barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko.**
Ley 7/2012, de 23 de abril, de modificación de diversas leyes para su adaptación a la Directiva2006/123/CE, de 12 de diciembre del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios de mercado interior.

**277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, Larrialdi egoerei aurre egiteko, jarduera, zentro edo establezimendu zehatz batzuei eskatuko zaizkion autobabeserako beharrak arautzen dituena (abenduaren 14ko EHAA, 238. zk.)**
Decreto 277/2010 de 2 de noviembre por el que se regulan las obligaciones de autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia (BOPV de 14 de diciembre, nº 238).

| Zezen-ikuskizunak<br>Espectáculos taurinos | Piroteknia-artifizioak<br>Artificios Pirotécnicos | Lokaletako segurtasuna<br>Seguridad de locales | Ordutegiak<br>Horarios |
|---|---|---|---|
| **Agindua, 2015eko abuztuaren 3koa, zeinaren bidez arautzen baitira zezen-ikuskizun orokorretan lagin biologikoak hartzeko eta analizatzeko prozedura eta lagin horiek analizatuko dituzten laborategiak homologatzeko prozedura.**<br>Orden de 3 de agosto de 2015, por la que se regula el procedimiento para la realización de toma de muestras biológicas en los espectáculos taurinos generales, su análisis y el procedimiento de homologación de los laboratorios encargados de los análisis de dichas muestras. | **400/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan artifizio piroteknikoak erabiltzen ikuskizunei buruzkoa**<br>Decreto 400/2013, de 30 de julio, de espectáculos con artificios pirotécnicos en la Comunidad Autónoma de Euskadi | **44/2014 DEKRETUA, martxoaren 25ekoa, jolas-jarduerak eta ikuskizun publikoak burutzeko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituena.**<br>Decreto 44/2014, de 25 de marzo, por el que se regulan los seguros de responsabilidad civil exigibles para la celebración de espectáculos públicos y actividades recreativas | **14/2014 Dekretua, Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ezartzen dituen Dekretua hirugarren aldiz aldatzen duena.**<br>Decreto 14/2014, de tercera modificación del Decreto por el que se establecen los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas y otros aspectos relativos a estas actividades en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco. |
| **124/2010 Dekretua, de 27 de abril, apirilaren 27koa, Zezen-ikuskizunei buruzko Araudia onesten zuen Dekretua aldatzen duena**<br>Decreto 124/2010, de 27 de abril, de modificación del Decreto por el que se aprueba el Reglamento de Espectáculos Taurinos | | **Jendaurreko ikuskizun eta jolas jardueretako lokalen gaineko kontratazioa (700 pertsonatik gorakoena): txostenak, irizpenak eta kontsultak emateko zerbitzua lokalen egokitasun, nahikotasun, egoera eta bestelakoen gainean, Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak hala eskatzen duenean. (2013 kontratua).**<br>Contratación del servicio de elaboración de informes, dictámenes y consultas que | **2013ko maiatzaren 15eko Agindua, Segurtasuneko sailburuarena, ordutegien eta identifikazio-bereizgarrien publizitateari buruzkoa**<br>Orden de 15 de mayo de 2013, de la consejera de seguridad, sobre publicidad de horarios y distintivos de identificación |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | sean solicitadas por la Dirección de Administración Electoral, Juego y Espectáculos sobre la idoneidad, suficiencia, estado u otros extremos de los locales y recintos de más de 700 personas de aforo, previstos para espectáculos públicos y actividades recreativas. (Contrato 2013) | |
| **183/2008 Dekretua, Euskadiko zezen-ikuskizunei buruzko araudia**<br>Decreto 183/2008 de Reglamento de espectáculos taurinos de Euskadi | | **Jendaurreko ikuskizun eta jolas jardueretako lokalen gaineko kontratazioa (700 pertsonatik gorakoena): txostenak, irizpenak eta kontsultak emateko zerbitzua, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak hala eskatzen duenean. (2009 kontratua)**<br>Contratación del servicio de elaboración de informes, dictámenes y consultas que solicite la Dirección de Juego y Espectáculos del Departamento de Interior del Gobierno Vasco sobre los locales de espectáculos públicos y actividades recreativas de capacidad superior a 700 personas de aforo. (Contrato 2009) | **2013ko otsailaren 1eko Agindua, Segurtasuneko sailburuarena, identifikazio-bereizgarriak jartzeko epea luzatzen duena**<br>Orden de 1 de febrero de 2013, de la consejera de seguridad, por la que se amplía el plazo para la instalación de los distintivos de identificación |
| | | **389/1998 Dekretua, abenduaren 22koa, jolas-jarduerak eta ikuskizun publikoak burutzeko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituena**<br>Decreto 389/1998 de 22 de diciembre, por el que se regulan los seguros de responsabilidad civil exigibles para la celebración de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas | **36/2012 Dekretua, martxoaren 13koa, ordutegien dekretua bigarrenez aldatzen duena (2012)**<br><br>Decreto 36/2012, de 13 de marzo, de segunda modificación del decreto de horarios (2012) |
| | | **216/1998 Dekretua, abuztuaren 31koa, ikuskizun publikoak eta aisialdi-jardunak eskaini ohi dituzten lokalak eta instalazioak ikuskaketzeko eta horiei buruzko ziurtapenak egiteko plan orokorra onartzen duena.**<br>Decreto 216/1998, de 31 de agosto, por el que se aprueba el Plan General de Inspecciones y Comprobaciones de los Locales e Instalaciones dedicados a espectáculos públicos y actividades recreativas.Plan general de inspecciones | **Ordutegien dekretuaren aldaketa (1998)**<br>Modificación del decreto de horarios (1998) |
| | | | **Ordutegien dekretua (1997)**<br>Decreto de horarios (1997) |

# 07

## EAEn joko eta ikuskizunei buruzko hausnarketak

### Reflexiones sobre el Juego y los espectáculos en la CAPV

Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren helburu nagusietako bat da herritarrek beren aisialdian eta dibertitzeko tarteetan, eta leku guzti-guztietan, segurtasuna izan dezatela bermatzea. Horretarako ezinbestekoa da ekitaldiak antolatzen dituzten enpresak zein pertsonak inplikatzea, ekitaldietan, jardueretan eta ekitaldiak gauzatzen diren establezimenduetan kalitate tekniko eta estrukturala eskain dezaten.

Inplikazio hori batzuetan indarrean dagoen araudia betetzeko beharra da, eta horrekin batera, legeak ezartzen duen kontrol- eta ikuskapen-erregimen zehatza.

Hala ere, Administrazioaren helburua ez da zehapenak jartzea, baizik eta aisialdiko zerbitzuak eta zerbitzu soziokulturalak kontsumitzen eta erabiltzen dituzten pertsonek aisialdiaz segurtasunarekin gozatu ahal izan dezaten lortzea. Antolatzaileen ardura hauxe da: Ikuskizunetan eta jolas-jardueretan parte hartzen duten pertsonen segurtasuna zaintzea.

Baina segurtasuna ez ezik, bizikidetza normalizatua ere zaindu behar da eta horretarako ezinbestekoa da hainbat pertsonaren sentsibilitateen, eskubideen eta betebeharren arteko oreka lortzea; izan ere, antolatzaileek, ikusleek eta parte hartu ez eta atseden hartzeko eta bakean bizitzeko eskubidea daukaten pertsonek sentsibilitate, eskubide eta betebehar desberdinak dituzte.

Ikuskizunei eta Jolas-Jarduerei buruzko lege berria 2015. urtearen amaieran onartu zen eta 2016. urtean zehar erregelamendu bidez garatuko da. Lege horren helburua da herritarren eskubide eta betebehar desberdinak bateragarri egitea.

Horrez gain, aurreko ekitaldian zehar, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak lan ikaragarria egin du jokoa eta apustuak arautzen dituzten araudi desberdinak eguneratzeko, eta merkatuaren bilakaerara, aldaketa teknologikoetara eta joko-kanal berrietara egokitu ditu. Horretarako, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak Euskadiko Jokoari buruzko Araudi Orokorra egin du eta 2016. urtean zehar onartzea espero dugu.

Uno de los principales objetivos de la Dirección de Juego y Espectáculos es garantizar la seguridad de la ciudadanía en su tiempo de ocio y diversión en todos y cada uno de los diferentes espacios. Para ello, es necesario implicar a las empresas y personas organizadoras de eventos para que ofrezcan calidad técnica y estructural en los espectáculos, en las actividades y en los establecimientos donde se llevan a cabo los eventos.

Una implicación que, en ocasiones, es la exigencia del cumplimiento de normativa en vigor que, además, conlleva el exhaustivo régimen de control e inspección que habilita la propia ley.

Sin embargo, el fin último de la Administración no es el de sancionar, sino el que las personas consumidoras y usuarias de los distintos servicios socio-culturales y de ocio puedan compaginar el disfrute de su tiempo de ocio con seguridad. Esta es la responsabilidad de las y los organizadores: velar por la seguridad de las personas que participan en los espectáculos y actividades recreativas.

Pero, junto con la seguridad es preciso velar también por una convivencia normalizada y para ello es necesario buscar el equilibrio entre las distintas sensibilidades, derechos y obligaciones de quienes organizan, de las personas espectadoras y de aquellas que sin participar tienen derecho al descanso y a una convivencia pacífica.

La nueva Ley de Espectáculos y Actividades Recreativas, aprobada a finales del año 2015 y que, a lo largo de 2016 tendrá un desarrollo reglamentario, persigue la conciliación de los diferentes derechos y deberes de la ciudadanía.

Además, durante el pasado ejercicio, la Dirección de Juego y Espectáculos ha realizado un trabajo ingente para actualizar las diferentes normativas que regulan el juego y las apuestas, adaptándolas a la evolución del mercado, a los cambios tecnológicos y a los nuevos canales del juego. Para ello, desde la Dirección de Juego y Espectáculos se ha elaborado el Reglamento General del Juego en Euskadi, que esperemos sea aprobado a lo largo del año 2016.

Araudi berri horrekin sektorekako antolamendua hobeto ezagutu dadin bermatzea lortu nahi da, horri esker, araudi hori interpretatzeko eta aplikatzeko argitasun eta segurtasun juridiko handiagoa izateko.

Con esta nueva normativa se persigue garantizar un mejor conocimiento del ordenamiento sectorial que proporcione mayor claridad y seguridad jurídica en su interpretación y aplicación.

Beste arlo ekonomiko eta sozial batzuetan bezala, jokoaren arloan ere aldaketa teknologikoen aurrean eta merkatu-kuota handiagoa lortzeko dinamismo handia nabaritu da eta egindako esfortzuak aitortu behar dira.

Al igual que otros colectivos económicos y sociales, también en el sector del juego se ha apreciado un gran dinamismo ante los cambios tecnológicos y a fin de conseguir más cuota de mercado y es de reconocer los esfuerzos realizados.

Kontua da joko-jarduera garatzeak arautzailearen eta joko-sektore desberdinetako kideen erantzukidetasuna eragiten duela. Era horretan, Jokoaren Agintaritza Arautzaileak jokalarien eskubideak babesten direla zainduko du eta joko arduratsua sustatuko du, eta helburu hori lortzeko prebentzio- eta heziketa-kanpainak bultzatu eta sustatuko ditu, eta mendekotasun sortzaileak diren jokabideak tratatzen dituzten elkarteekin, asistentzia eta laguntza-programetan, lankidetzan arituko da .

Y es que el desarrollo de la actividad del juego implica una corresponsabilidad entre el regulador y los integrantes de los distintos sectores del juego. De esta manera, la Autoridad Reguladora del Juego velará por la protección de los derechos de los jugadores y promocionará la práctica del juego responsable, impulsará y potenciará campañas preventivas y educativas tendentes a tal fin y colaborará con asociaciones dedicadas al tratamiento de conductas adictivas en programas de asistencia y colaboración.

Gainera, joko arloko enpresa operadoreen inplikazioa ere bilatuko da, joko-jarduerak garatzean gizarte-erantzukizun korporatiboa kontuan har dadin. Kontzeptu horrek barne hartzen ditu enpresa-jardunbide ireki eta gardenak, balio etikoetan eta enplegatuekiko, jokalariekiko eta, oro har, gizartearekiko errespetuan oinarritutakoak.

Además, se buscará la implicación de las empresas operadoras de juego para que las actividades de juego sean desarrolladas con sentido de la responsabilidad social corporativa. Un concepto que incluye el conjunto de prácticas empresariales abiertas y transparentes basadas en valores éticos y en el respeto hacia las y los empleados, jugadores y, sociedad en general.

Laburbilduz, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren helburua da aisialdiaz askatasunez eta segurtasunez gozatu dadin bermatzea, eta , kontrolaren bidez eta herritarren kontzientziazioaren bidez, jokoa arduratsua izan dadin zaintzea.

En definitiva, el fin último de la Dirección de Juego y Espectáculos es garantizar el disfrute del ocio en libertad y con seguridad, velando por la responsabilidad en el juego mediante su control y la concienciación de la propia ciudadanía.